IHITZA
Bigarren sasoia • Segunda época
VERANO • 2004 • UDALDIA
14

ESKOLA EKOLOGIKOA ERAIKITZEN ◆ POR UNA ESCUELA ECOLÓGICA

1,80 €



# AISIALDIA:
## egin salto aurrera

www.euskadi.net/ihitza

IHITZA

ESKOLA EKOLOGIKOA ERAIKITZEN

Bigarren sasoia. **14. ZENBAKIA**
2004ko UDALDIA

**AISIALDIA: EGIN SALTO AURRERA**

POR UNA ESCUELA ECOLÓGICA

Segunda época. **NÚMERO 14**
VERANO de 2004

4015 Posta–kutxatila
48080 Bilbao

www.euskadi.net/ihitza
posta–e: ihitza@ej–gv.es

**Zuzendaria // Director**
Josu Erkiaga Laka
**Argitalpen–kontseilua // Consejo editorial**
CEIDA
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua // Servicio de Educación Ambiental del Gobierno Vasco
**Erredakzio–taldea // Redacción**
Isabel Prieto de Blas
Itziar Beasain Ingunza
Txema G. Crespo
**Kolaborazioak // Colaboraciones**
Arantza Arruti
Pilar Abella
**Argitalpena // Edición**
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia // Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
**Maketazioa // Maquetación**
Begi Bistan
**Argazkilaritza // Fotografía**
Iñaki Díez Fernández
**Ilustrazioa // Ilustración**
Fernando Ibáñez de Elejalde Villate
**Itzulpena // Traducción**
Ana Santos Elortza
**Fotomekanika // Fotomecánica**
Xxxxxxxxxxxxxxxxxxx
**Inprimaketa // Impresión**
Xxxxxxxxxxxxxxxxxx

Kontsumitu osteko paper birziklatua %100ean
Papel reciclado postconsumo 100%

**ISSN:** 1135-6391
**L.G. // D.L.:** VI-825/92

CEIDA
- **Araba**
  VITORIA–GASTEIZ
  • © 945 17 90 30
- **Bizkaia**
  BILBAO
  • © 944 11 49 99
  URDAIBAI
  • © 946 25 71 25
- **Gipuzkoa**
  DONOSTIA–SAN SEBASTIÁN
  • © 943 32 18 59
  LEGAZPI
  • © 943 73 16 97

**IHITZAk** ingurumen hezkuntzari buruzko eztabaidarako topagune bihurtzea du helburu. Hortaz, aldizkaria ez da bertan sinaturik agertzen diren artikuluen erantzule.

**IHITZA** pretende ser un foro de debate sobre educación ambiental y no se hace responsable de las opiniones expresadas en los artículos firmados.

# agur

***AISIAK BEZAIN ARGI KONTZEPTU GUTXIK EZBERDINTZEN DUTE GAUR EGUNGO GIZARTEA GAINERAKO GUZTIETATIK.*** ***Aisia industria ondoko gizartearen zuzeneko ondorioa da, bai eta, aditu batzuen iritziz, ongizatearen kulturaren lorpenik handiena ere.***
***Hasi berri dugun mendeak gizakiaren ikusmolde berri bat piztu du munduan: aisiaren kultura deritzona.***

***Tradizioz, lanak definitzen zituen pertsonak, gizarte klaseetan sailkatuta. "Bizimodu" kontzeptuak lotura estua du aisialdiaren erabilerarekin, eta, ziurrenik, klasekako egiturak baino gizarte ezberdintasun handiagoak ezartzen ditu.***

***Baina ingurumenarekiko kontzientziak ekoizpen-prozesuak zalantzan jarri dituen bezala —prozesuok ekosistemei jasanarazi dizkieten inpaktu larriengatik—, aisiaren kulturak eta horren atzean dagoen industriak ere iraunkortasuna hartu behar du lehentasuntzat, bere ekoizpen eta kontsumo-sare konplexuaren maila guztietan.***

***Agian uste dugu aisialdia —atsedena ekartzen digun heinean— ez dela une egokia hegazkinez joatean egiten dugun baliabide-kontsumoari eta bestelako gai garrantzitsuei buruzko gogoeta egiteko; baina ingurumenarekiko kontzientzia aisialdiaz gozatzeko moduan ere islatzen ez bada, ezer gutxi lortuko dugu.***

***Izadiaz gozatzea oporretan maizen asetzen dugun beharretako bat izaten da. Paseo, txango edo urrutiko lekuetara joateko bidaia une horietan, baliteke ekosistemetako desoreken tamainaz hobeto konturatzea, aurkitzen gero eta zailagoa den txoko liluragarri horren bila gabiltzalarik.***

***POCOS CONCEPTOS DIFERENCIAN TANTO A LA SOCIEDAD MODERNA DE TODAS LAS DEMÁS COMO EL DE OCIO.*** *El ocio es consecuencia directa de la sociedad postindustrial, y a decir de algunos autores, el logro máximo de la cultura del bienestar. El siglo que estamos empezando ha alumbrado una nueva situación del ser humano en el mundo: es la llamada cultura del ocio.*

*Tradicionalmente era el trabajo el que definía a las personas, estableciendo clases sociales. El concepto de "estilo de vida" está estrechamente asociado al uso del tiempo de ocio, y establece unas diferencias sociales quizá más claras que la estructura de clases.*

*Pero del mismo modo que la conciencia ambiental ha cuestionado los procesos productivos por la gravedad de sus impactos en el ecosistema, la cultura del ocio y la industria que genera deben incluir entre sus prioridades la sostenibilidad en todos los niveles de su compleja red de producción y consumo.*

*Quizá tendamos a pensar que el tiempo de ocio, por el relax que nos proporciona, no es momento para plantearse cuestiones trascendentes como el consumo de recursos que utilizamos al viajar en avión, por ejemplo; pero si la conciencia ambiental no ocupa su lugar también en nuestra forma de disfrutar el tiempo libre, poco se habrá conseguido.*

*El disfrute de la naturaleza es una de las opciones a las que más se recurre en vacaciones. Quizá sea en esos momentos de paseo, de excursión, o de viaje a lugares lejanos, cuando podamos percibir mejor la magnitud de los desequilibrios en el ecosistema: cuando busquemos ese rincón paradisiaco que cada vez es más difícil encontrar.*

***Sabin Intxaurraga Mendibil***
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILBURUA
CONSEJERO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

***Anjeles Iztueta Azkue***
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA
CONSEJERA DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**harpidetza // suscripción**

IHITZA **Hiru aleko harpidetza** // Suscripción por tres números **5,41 €**

***Izen–deiturak edo egoitza*** // Nombre y apellidos o razón social

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

***Helbidea*** // Dirección . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

***Posta kodea*** // Código postal . . . . . . . . . . . . . . ***Herria*** // Localidad . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

***Herrialdea*** // Territorio . . . . . . . . . . . . . . . . . . . ***I.F.Z.*** // N.I.F. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

***Telefonoa*** // Teléfono . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . ***Faxa*** // Fax . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

***Posta–e*** // Correo–e . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . ***Zenbaki honetatik aurrera*** // Desde el número . . . . . . . . .

**ORDAINKETA. Egin zeure banku transferentzia Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren kontu zenbaki honetara: 2097 0178 11 0010963058. Ez ahaztu zeure datuak ordainagirian zehaztea. Bidali harpide agiri hau helbide honetara: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Donostia–San Sebastián 1, 01010 Vitoria–Gasteiz.**

FORMA DE PAGO. Transferencia bancaria a: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Número de cuenta: 2097 0178 11 0010963058, indicando quién hace el ingreso. Esta solicitud se enviará a: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Donostia–San Sebastián 1, 01010 Vitoria–Gasteiz.

# egon badago

## gaia zabaltzen

### El disfrute del medio ambiente



**4** *La educación ambiental debe diseñar y desarrollar actuaciones encaminadas a que las personas seamos capaces de adquirir, interiorizar y asumir conocimientos y actitudes favorables al medio ambiente también en el tiempo de ocio.*
Arantza Arruti

## begiratokia

### "La gente joven quiere que su participación sirva para algo"

**25** *Pilar Abella, responsable del Servicio de Juventud del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, nos explica en una entrevista cómo, mediante el PLAN KIDE, han logrado la participación de jóvenes de Gasteiz en el diseño de la red de bidegorris de la capital.*



## eta gurasoek zer?

### AMPAs de Bilbao crean un grupo de tiempo libre

**28** *Miembros de varias AMPAs de Bilbao se han puesto manos a la obra para que las actividades de tiempo libre de sus hijos e hijas respondan al perfil educativo que desean.*



## klasetik at

**26** *Aisia funtsezkoa da hezkuntzarako, maila guztietan. Horregatik, izadiak aisian duen eragina dela eta, ingurumen-hezkuntzak bere tokia aurkitu behar du aisiaren arloan.*

## baliabideak eskura

**29** *Eskolak ez du alde batera utzi behar astialdia, ikasleen hezkuntza integralaren atal garrantzitsua da eta. Horregatik, oso ona da ingurumen-hezkuntza ikastetxetik kanpo ere garatzeko argibideak, bitartekoak eta ideiak ematea.*

## 9 bitakora kaiera

***Gero eta hiritarragoa den gure gizarte-ereduan, natura irtetea (aditzak berak adierazten du) ihesbide bihurtu da; baina... pozgarria izan daiteke aisialdia, ingurua lorrinduta badago?***

## guztiok elkarlanean

### Hormigoia lorategi bihurtu

**10** *Ugaro Herri Eskolan (Legorretan), parkea eta eskolaren ondoko pabilioia erabilera publikorako eta ikasleek jolastorduetan erabiltzeko bateragarri egiten saiatzen ari dira. Horretarako, proiektua aurkeztu diote Udalari.*



## eskolako eko-auditoretza

### Jai iraunkorragoak

**14** *Ikastetxean jaia antolatzen dugunean, dibertsio-eredu bat islatzen ari gara. Egin dezagun ekologikoagoa gure jaia.*



## bizkor ibili gero!

### Jolastera!

**24** *Zer egiten dugu jolastorduan? Nahikoa jolastu zarete jadanik baloiaz; jolas berriak proposatu behar dira... Berriak? Ikasle gazteenentzat, helduen txikitako jolasak izugarrizko aurkikuntza izan daitezke.*

## ekin eta ekin

### Jolastokirako errezetak

**16** *Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako jolasak.*



### Bote-bote

**18** *Lehen Hezkuntzako bigarren ziklorako jolasa.*



### Aquariumera bisitaldia

**19** *Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako behaketa-fitxa.*



### Gazteak globalizazioaren aurrean

**20** *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako hausnarketa.*



### Aisialdia: non? zertarako? norekin?

**21** *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklorako azterlana.*

### Zer egiten duzu astialdian?

**22** *Batxilergo eta Heziketa-ziklorako proposamena.*

*Todos los textos de IHITZA en euskara y castellano en* **www.euskadi.net/ihitza** *web orrian IHITZAko testu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz*

IHITZA
**AISIALDIA: EGIN SALTO AURRERA** • 2. sasoia. 14. zk. • 2004ko UDALDIA // 2ª época. Nº 14 • VERANO de 2004

# El disfrute del medio ambiente

*Aisiaz izadian gozatzeak onura handia dakar; baina ez dugu ahaztu behar gure jarduerak ondorio kaltegarriak eragiten dituela. Horretaz ohartzea da ondorio horiek aztertzeko eta saihesten saiatzeko modu bakarra.*



*Arantza Arruti*

Pedagoga experta en Educación del Ocio.
Profesora de la Universidad de Deusto.
Coordinadora del Programa SOCRATES
del Instituto de Estudios del Ocio.

**¿Cuáles son las posibilidades** de ocio con las que contamos para disfrutar del medio ambiente? ¿Por qué muchas personas seleccionamos los entornos naturales para disfrutar del tiempo libre? ¿Se puede aprender a vivir un ocio sostenible? Éstas son sólo algunas de las preguntas que nos llevan a reflexionar sobre el significado del ocio y sobre el papel que desempeña la educación en su vivencia en entornos naturales.

Desde nuestra perspectiva, el ocio es un derecho y una experiencia básica y vital del ser humano que, como factor de desarrollo y crecimiento, se caracteriza por ser una vivencia personal, subjetiva y única con la que las personas nos identificamos. Forma parte de nuestro modo de ser, pensar y actuar, y está directamente relacionada con la formación que recibimos a lo largo de nuestra vida y con los recursos que la hacen más o menos posible y enriquecedora. El ocio puede manifestarse a través de actividades de muy diversa índole que, en cualquier caso, han de ser cultural y socialmente aceptadas. Se trata de experiencias que no buscan recompensa económica, material o utilitaria alguna, sino, más bien, la propia satisfacción y realización personal. Son vivencias que se basan en la falta de obligatoriedad o, lo que es lo mismo, en nuestra libertad de elección y acción, y que nos permiten realizar algo porque nos gusta, deseamos o, simplemente, nos apetece. Este ocio del que hablamos no se debe a un tiempo de actuación determinado, aunque es cierto que, en un gran número de casos, el tiempo libre del que disponemos suele ser, para muchos de nosotros, una de las condiciones *sine qua non* para poder alcanzar un grado de disfrute, placer, bienestar y satisfacción personal que dé sentido a la vivencia de ocio.

**El entorno natural como uno de los grandes co-protagonistas de la experiencia de ocio**

Durante los últimos años hemos podido contemplar una serie de fenómenos que nos han llevado a pensar que el entorno natural es un espacio indiscutible de ocio y que éste, a su vez, parece que cobra más sentido al entrar en contacto con el entorno natural. Entre ellos destacamos los siguientes:

- La proliferación de equipamientos situados en entornos naturales: granjas-escuela, centros de interpretación o aulas de la naturaleza. En España existen alrededor de 700 equipamientos de este tipo, de los cuales más del 30% están situados en entornos naturales.
- El aumento de la diversidad de oferta y demanda de actividades a realizar en espacios naturales: pesca deportiva, parapente, ala delta, paracaidismo, senderismo, agroturismo, ecoturismo, acampada, itinerarios



*Las actividades de ocio en la naturaleza se convierten en problemáticas cuando su prác-*

o excursiones por entornos naturales, caza, actividades de multiaventura, esquí, turismo ecuestre o espeleología son sólo algunos ejemplos.

- El aumento del número de participantes en actividades de ocio en entornos naturales. Es una realidad que cada vez demandamos más espacios naturales alejados de la ciudad y de la contaminación, que nos den oportunidades para descansar, divertirnos y acercarnos a experimentar la naturaleza.

De entre los distintos tipos de actividades de ocio que nos brindan estas posibilidades, destacamos las ecológicas que, teniendo lugar en contacto con el entorno natural, se caracterizan por: propiciar sentimientos de libertad, placer y creación de hábitos de vida saludables; posibilitar el encuentro o reencuentro con la naturaleza; relacionarse con actividades lúdicas, la diversión y el deporte; generar sensaciones de tranquilidad y sosiego; y contribuir al aumento de la autoestima, la autoconfianza o el conocimiento personal. Si algo hace especiales a este tipo de actividades es que nos permiten alcanzar altos niveles de satisfacción y bienestar a la vez que contribuimos a la mejora del entorno en las que las realizamos. En definitiva, se trata de actividades de ocio que tienen en cuenta las reglas y normas de protección y conservación de los espacios naturales, y que están encaminadas al desarrollo sostenible y a dar continuidad a la consideración del entorno natural como espacio de ocio por excelencia.

**Pros y contras de las actividades de ocio en entornos naturales**

Este tipo de ocio en espacios naturales, además de las posibilidades de aprendizaje y conocimiento de la naturaleza, reporta una serie de beneficios personales y sociales: descansar del trabajo, descargar tensiones y recuperar las energías perdidas en un ambiente muy privilegiado; huir de los ruidos y de la contaminación de las ciudades; evadirse de la monotonía y de los problemas de la vida cotidiana; disfrutar del aire puro y de los recursos naturales; divertirse, entretenerse o distraerse en entornos de características inigualables; recrearse y relajarse; realizar actividades en contextos muy difíciles de igualar y sin los cuales muchas de las actividades carecerían de sentido; tener experiencias nuevas, lo suficientemente gratificantes y satisfactorias como para desear volver a sentirlas; experimentar una mejoría física y mental; o ser solidario y sentirse más feliz y satisfecho consigo mismo, con los que le rodean y con el entorno en el que se encuentra. Pero la realización de actividades de ocio en espacios naturales puede causar, además, una serie de impactos negativos:



*tica se masifica. Hay que evitar que nuestro disfrute del medio sea otro impacto más.*

- Sobre el espacio natural: incremento de erosión del suelo; deforestación del terreno; deterioro de caminos y senderos; aumento de incendios forestales; contaminación del agua, aire y tierra; muerte y daño de especies de fauna y flora; pérdida de hábitats y perturbaciones de especies amenazadas; deterioro del atractivo visual de los paisajes; incremento del ruido; generación, aumento y/o acumulación de basuras o residuos orgánicos e inorgánicos; etc.

- Sobre la persona y su desarrollo: disminución de las posibilidades *futuras* de disfrutar y satisfacer necesidades de ocio en espacios naturales, pues el deterioro sufrido en el medio ambiente hace que dichos espacios entren en un proceso de degradación cada vez mayor.

**El papel de la educación o cómo superar los impactos negativos y beneficiarse de los positivos**

Las consideraciones previamente realizadas no vienen sino a incidir en una idea: la conveniencia de dirigir nuestro estilo de ocio hacia un ocio sostenible, orientado a satisfacer nuestras necesidades y aspiraciones, sin que con ello comprometamos la posibilidad de que otras generaciones también puedan hacerlo. Uno de los primeros pasos para conseguirlo es contar con un medio ambiente adecuado y bien cuidado que garantice nuestro bienestar y desarrollo. Y, un segundo paso, no menos importante que el primero, es lograr que las personas de distintas generaciones contemos con la necesaria formación que nos permita mejorar nuestra calidad de vida a través de experiencias que nos reporten disfrute, satisfacción y bienestar, siempre que éstas se realicen de forma compatible con la protección y conservación medioambientales. Esta es una de las labores que ha de desempeñar la educación ambiental del ocio. Desde ella, deberíamos diseñar y desarrollar actuaciones encaminadas a que las personas seamos capaces de adquirir, interiorizar y asumir tanto conocimientos y valores pro–ambientales, que se reflejen en actitudes y comportamientos respetuosos hacia el medio ambiente, como conocimientos, valores y habilidades de ocio que nos posibiliten tener verdaderas experiencias de ocio, que nos hagan crecer como personas en un ambiente sano y saludable.

## agenda berdea



### Un folleto informativo reivindica la necesidad de conservar los restos de árboles muertos

El Instituto Alavés de la Naturaleza, en colaboración con el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, ha elaborado un folleto informativo bellamente ilustrado, que repasa los muchos beneficios ambientales que aportan los árboles muertos a los habitantes del bosque, al propio suelo y al ecosistema en general. Sirva de homenaje póstumo a Iñaki Zorrakin Altube, autor de las ilustraciones.




### El Programa E-learning cuenta ya con más de 10.000 centros asociados

El Programa E-learning es una iniciativa del Parlamento Europeo cuya finalidad es utilizar las nuevas tecnologías para desarrollar la capacidad de aprendizaje de la persona, reduciendo las desigualdades, y prepararla para formar parte de la sociedad del conocimiento. Se basa en la accesibilidad que supone internet, pero no es un programa tecnológico, sino que está dirigido pedagógicamente al intercambio de experiencias e información entre grupos e individuos, de manera que pueda servir a lo largo de todo el proceso de aprendizaje, e incluso después del mismo.
De momento, este programa tiene una fase de aplicación que expirará el 31 de diciembre de 2006, y se puede acceder a él a través del portal:

www.elearningeuropa.info

Para el profesorado, el interés radica en la posibilidad de conocer otros enfoques y prácticas de calidad en el ámbito educativo, la posibilidad de mejorar los métodos pedagógicos, el fortalecimiento del aprendizaje de idiomas... Al amparo de este programa se ha creado el Foro *School Twinning Through the Internet* (hermanamiento escolar a través de internet) para fomentar las relaciones entre centros escolares.

### Los secretos de una dieta sana y equilibrada ya están al alcance del alumnado

La Dirección de Consumo del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco ha distribuido por todos los centros de enseñanza una unidad didáctica interactiva sobre alimentación y nutrición.
Bajo el título genérico de *Dieta*, los autores presentan dos cuadernos de trabajo para el alumnado y uno para el profesorado, además de un CD-ROM. El cuaderno de trabajo dirigido a Educación Primaria es una propuesta de actividades relacionadas con los alimentos, mientras que el dirigido a Educación Secundaria Obligatoria se centra en los nutrientes y los grupos de alimentos.
El CD-ROM es un material tanto de consulta como de estudio y entretenimiento, y está estrechamente relacionado con las actividades de los cuadernos de trabajo, de modo que el alumnado pueda recurrir a él.




**EL ENCUENTRO SOBRE DIDÁCTICA DE LAS CIENCIAS EXPERIMENTALES DESTACÓ LA IMPORTANCIA DE LA EDUCACIÓN AMBIENTAL** El Departamento de Didáctica de la Matemática y de las Ciencias Experimentales de la UPV y la Asociación de Profesorado de Didáctica de las Ciencias Experimentales organizaron entre el 8 y el 10 de septiembre la XXI edición de estos encuentros, durante los cuales se ha puesto de relieve la necesidad de profundizar en este área a lo largo de sus diferentes niveles educativos, para avanzar en su consolidación y mostrar a la sociedad las innovaciones que se producen en la actualidad.
A lo largo de los encuentros se han analizado las diferentes tendencias y puntos de vista sobre la enseñanza y el aprendizaje de las Ciencias de la Naturaleza en Educación infantil, Primaria y Secundaria. También se han presentado diversos enfoques en la enseñanza/aprendizaje de las Ciencias de la Naturaleza en los planes de Formación del Profesorado en las diferentes etapas educativas, y se ha resaltado la importancia de la coeducación y la educación ambiental, así como el papel de los Museos de Ciencias en la enseñanza y aprendizaje de las Ciencias de la Naturaleza; asimismo, se han expuesto propuestas de líneas de investigación innovadoras en el área de Didáctica de las Ciencias experimentales. La conferencia de clausura corrió a cargo de

María Pilar Jiménez Aleixandre, escritora y profesora de la Universidad de Santiago de Compostela, que disertó sobre la *Educación ambiental en los diferentes niveles educativos ante la Reforma y la Convergencia Europea*.

**LA ASTE BERDEA RECOGIÓ EL COMPROMISO DE APLICAR LA AGENDA 21 ESCOLAR EN 230 MUNICIPIOS VASCOS** Los actos de la Aste Berdea, que cada año organiza el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco alrededor del Día Mundial del Medio Ambiente, crecen en cantidad y participación. Buena muestra de ello fue la gran asistencia registrada en los XIII Encuentros de Educación Ambiental que se celebraron en Tolosa. Bajo el lema *Educar para la sostenibilidad* se recogió el compromiso de aplicar la Agenda 21 Escolar en los centros de enseñanza de 230 municipios.

**EL CENTRO EMILIO CAMPUZANO DE BILBAO PARTICIPARÁ EN EL ECOPARLAMENTO EUROPEO DE LA JUVENTUD DE BERLÍN** El proyecto de medio ambiente *Tengo que separar los objetos reciclables*, presentado por un grupo de 3er curso de Educación Secundaria Obligatoria, ha resultado seleccionado entre otros 17 del estado español para dirigir sus propuestas al Parlamento Europeo en el grupo de trabajo sobre residuos.
Esta iniciativa parte de *Pro-Europe*, una institución que agrupa a los sistemas europeos de recogida selectiva



*Parte del equipo que ha preparado el proyecto.*

de envases. El objetivo es reunir en un Congreso Internacional sobre Reciclado, que tendrá lugar en Berlín los días 22 a 24 del mes de septiembre, a 100 estudiantes de toda Europa para presentar una propuesta de Libro Blanco del Medio Ambiente ante el Parlamento Europeo.
El proyecto presenta cuatro fases. En la primera se pretende conocer la gestión del Ayuntamiento de Bilbao en relación a la recogida selectiva de residuos; en la segunda, realizar actividades de sensibilización ambiental en el centro, implicando a familias y alumnado, para evaluar su participación y cambio de actitud en la recogida selectiva de residuos domésticos. En su tercera fase plantean el estudio del problema de los residuos en el Casco Viejo bilbaíno y en un barrio nuevo; y la conclusión final trata de aportar estrategias para generar menos residuos urbanos.

*Toki arazoak direla eta, IHITZAk beretzat gordetzen du jasotzen dituen gutunak osorik ez argitaratzeko eskubidea. Makinaz idatziriko 30 lerrotik beherako testuak bidaltzea erregutzen dizuegu. Gutunetan egilearen sinadura, beraren datuak eta harremanetarako telefono zenbaki bat jarri behar dira. Ez zaio inori egileen telefono zenbakirik ez helbiderik emango.*




*IHITZA se reserva, por motivos de espacio, el derecho de no publicar íntegramente las cartas que se reciban. Se recomienda que no excedan las 30 líneas mecanografiadas. Las cartas deben estar firmadas e incluir los datos de quien escribe y un teléfono de contacto. No se facilitarán teléfonos ni direcciones de los/as autores/as.*

## Hirukide ikastetxeko bake astea

*Bakea zugan duzu, atera ezazu* izan da aurtengo bake astearen leloa. Urtero bezala, urtarrilaren azken astean bakeaz hausnartzeko eta sentsibilitate handiagoa bultzatu nahian aritu gara, txikienetatik Batxiler eta Goiko Zikloetaraino hedatuz.

Ekintzak Batxilergoko eta Heziketa Zikloko ikasleekin hasi genituen. Elkarrik antolatuta, *La pelota vasca* filma ikustera joan ginen beste zenbait ikastetxerekin. Dokumentalak elkarrizketarako eta euskal gatazka aztertzeko bideak zabaltzen ditu. Talde ezberdinetan



*Tolosako plazan bakearen alde egindako kontzentrazioko une bat.*

horretaz hitz egin ondoren, bukaera emateko asmoz, mahai inguru bat sortu genuen Gesto Por la Paz, Elkarri eta Etxerat izenekoen partaidetzarekin. Beste zikloetan (Haur Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan) ariketa eta ekintza desberdinak egiten aritu ginen, bai marrazkien bidez bai hausnarketa edo dinamika batzuen bidez.

DBHn Gesto por la Paz elkartearen materiala erabili genuen, Itakako *Educar para la paz* deritzonarekin batera. Horrela, gai guztiei buruz hausnartu eta asteari globalitatea ematea lortu ahal izan dugu. Astea amaitzeko, Tolosako erdigunean ekintza bat egin genuen ikasle, irakasle eta gurasoek denok batera: Gandhiren heriotzaren oroigarria. Ekintza abesti, hausnarketa eta ikurrez betea izan zen.

HIRUKIDE IKASTETXEA (TOLOSA)



Tolosako Alkatea, osoko udal bilkuren aretoan, ikasleen iradokizunak jasotzen.

## Tolosako Ikastetxeen Agenda 21

Tolosako ikastetxeetako ikasle zein irakasleok herrian zabalduko den bidegorria aztertu dugu; horrez gain, *Kotxerik gabeko egunean* (irailak 22), proiektuaren lehen faseko ibilbidea probatu ere egin genuen. Hona hemen jaso genituen eskariak nahiz konpromisoak.

Segurtasunaren aldetik hauxe da eskatzen duguna: bidegorriek ongi seinaleztaturik egon behar dute (esaterako, kotxeen abiadura gutxitzeko). Era berean, bidegorriak kotxe eta oinezkoen pasealekuetatik bereizturik egon beharra (adibidez, bidegorriei altuera ezberdina emanez).

Erabiltzaileok harturiko konpromisoak: kaskoak erabiltzeko eta araudia ezagutu zein betetzeko prest gaude.

Bidegorriek izan behar dituzten ezaugarriak: bi noranzko izan behar ditu (ondo bereiztuta); zabalera ahalik eta handienekoa izatea; inguruko herriekin lotura eduki beharra; eta leku estrategikoetan aparkaleku egokiak izan nahi ditugu, besteak beste. Geure aldetik, eguneroko joan-etorrietan bizikleta erabiltzeko prest gaudela hitz ematen dugu. Ikastetxe bakoitzari begira, Hirukide (Eskolapioak zein Jesuitinak), Laskorain eta Orixe-Samaniego ikastetxeetan existitzen diren arazoak konpondu behar dira (trafikoa desbideratzea, esaterako).

Eta bukatzeko zera eskatzen dugu: hurrengo urteko aurrekontuetan bidegorriaren bigarren faseari lehentasuna ematea; bidegorria inauguratu aurretik, bide hezkuntzako kanpaina herritar guztien artean zabaltzea; bidegorriaren erabilpena bultzatzea eta, azkenik, bizikletak dakartzan onurez kontzientzia hartzea.

TOLOSAKO IKASTETXEEN AGENDA 21EKO FOROA.

## Estudio de las flores: una experiencia con niños y niñas de tres años

Hemos llevado a cabo una experiencia muy interesante con niños y niñas de 3 años en el C. P. Urregarai de Aulesti (Bizkaia), con la que hemos demostrado que el alumnado de tres años es capaz de realizar un trabajo de investigación en el medio natural. Para ello, nos hemos servido, además del trabajo de campo, de la posibilidad de interactuar con otros alumnos y alumnas, de la documentación bibliográfica y del uso de las nuevas tecnologías.



*Una alumna de tercer ciclo ayuda a una niña a introducir datos del estudio en el ordenador.*

El centro está situado en un pequeño municipio de entorno rural que cuenta con una gran riqueza en el campo medioambiental, que utilizamos en distintas propuestas de trabajo, como *Recogemos frutos de otoño* o *Limpiamos el río*.

En esta ocasión, quisimos que los más pequeños también salieran al campo, en busca de flores silvestres. Los alumnos y alumnas del tercer ciclo nos ayudaron a introducir los datos en el ordenador. Este tipo de propuesta no es nueva en el centro, porque, para potenciar la lectura, ya se realiza la experiencia de *Padrinos y madrinas de leer*, en la que los alumnos y alumnas del tercer ciclo comparten momentos de lectura, como tutores, con niños y niñas de 4 y 5 años.

Para hacer la presentación, se utilizó el programa *Power Point*. Luego se grabó la voz de cada niño y niña diciendo el nombre de la flor que le había tocado; después se decidieron los intervalos entre cada diapositiva, se sacó una foto del grupo y cada niño y niña escribió su nombre, siendo ésta la última diapositiva del trabajo. Se enseñó el producto final en la pantalla del ordenador, y en la expresión de sus caras pudimos constatar la satisfacción que en su interior sentían por el trabajo realizado.

Dado el éxito del trabajo, posteriormente lo expusimos al resto de los grupos del centro y, más tarde, a las familias, en el día de la fiesta de la escuela. La experiencia ha servido para confirmar que la edad no es obstáculo a la hora de trabajar conceptos complejos, si estos han partido del interés del alumnado y si han tomado parte activa, haciéndolo suyo, en todo el proceso.

IRENE URRIOLABEITIA Y KARMELE TOTORIKAGUENA
C.P. URREGARAI H.I. (AULESTIA)

# bitakora  kaiera

## ZER DA AISIA?

**Aisia geuk nahi duguna egiteko erabiltzen dugun astialdia da. Aisiaren ezaugarri nagusietako bat aukeratzeko askatasuna da. Bestalde, aisiako jardueraren batean dabilenak ez du helmuga komertzialik, ideologikorik edo praktikorik, bestela ez litzatekeelako dibertigarria, aisia den moduan; izan ere, aisiaren berezko helburua poztasunezko egoera aurkitzea da. Aisia, azkenik, zuzentzen ez diren giza gaitasunak garatzeko esparrua da.**




## GAZTEAK ETA BIZIMODUAK

Gazteen erdiek denboratxo bat ematen dute egunero lagunekin solasean; denboratxo hori luzeagoa da asteburuetan astegunetan baino. Era berean, egunero irteten dira edatera, nahiz eta hori, batez ere, asteburuetan egiten duten. Bi jarduera horiek duela urte batzuk baino maiztasun handixeagoz egiten dira, baina alde nabarmenik gabe. Lagun taldearekin elkartzea balioesten diren jardueretakoa da; telebista ikusteak, aitzitik, jarduera ohikoena izan arren, ez du onespen handirik, eta ez da jarduera gogokoenen artean aipatzen, gazteriak, oro har, etengabe kritikatzen duelako, agian. Hirugarren jarduerarik garrantzitsuena *kopak hartzea* da, eta tarteko toki anbiguo batean kokatzen da: esaten dutena baino gehiagotan egiten dute, baina egiten eta esaten dena baino gutxiagotan egin nahi dute; agian, horrek ere badu loturarik gizarteak kopak hartzeari buruz duen gaitzespen-iritziarekin; baina, jakina, kopen gaitzespena telebistarena baino askoz txikiagoa da.

Datuak inkesta egin zaien pertsonen ehunekotan ageri dira:
Astegunetan egiten du ▪. Larunbatetan egiten du ▪. Egiten duela esaten du ▪. Gustatzen zaio ▪.

**Iturria**: COMAS, D. (Zuzendaria). **Jóvenes y estilos de vida.** INJUVE eta FAD. Madrid, 2002. PDF formatuaz ikus daiteke www.injuve.es web gunean.

# Hormigoia lorategi bihurtu



***Legorretako eskolak, eguzki-panelak ipini zituen lehenengoak, parke bihurtu nahi ditu ikastetxearen inguruak***

**Oria ibaiaren** ertzean eta Marumendiren itzalpean, bandera berdea harro mugitzen da Legorretako Ugaro Herri Eskolan, bera baita, 2001eko otsailean, eguzki-energia erabiltzeko panelak ipini zituen lehenengo euskal ikastetxea. Ikastetxearen jarduera biziak aintzatespena lortu du ingurumen–hezkuntzako programetan. Eskolaren inguruko eremuan parkea diseinatzea da azken proiektua, eta Haur Hezkuntzako 1. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko ume guzti-guztiek hartu dute parte.

Ugaro Herri Eskola Legorretako hirigunetik kanpo dago eta herriko kiroldegiaren onurak gozatu eta eragozpenak nozitu egiten ditu. Bertako 105 umeek eta 12 irakasleek hormigoia nagusi den kirol-instalazio horiek erabiltzen dituzte jolasteko, baina ingurumenaren kalitatearen aldeko proiektuan sartuta eskolak lortutako banderaren kolore berdea faltan dute. Beraz, ez da harrigarria ikastetxeko zuzendaritzak abian jarri duen ekimena: ikastetxearen inguruan, auzoko guztiek gozatzeko moduko parkea eratzeko proiektua, alegia. Ikastetxeko ikasketa-buru Ines Elorzak gogoratzen duenez, *eskola Legorretaren atal da; horregatik, gure ekintzek herriaren gainerakoa ere hartzen dute beti aintzat*.

Horrelaxe egin dute eguzki-energia erabiltzeko panelekin, Ibaialde programaren barruan Oria ibaian garatu dituzten jarduerekin, eta Marumendiko zuhaitzetan ipini izan dituzten habia-kutxekin ere. Oraingo honetan, eskola ingurumenaren kalitatearen alde garatzen ari den lanaren baitan egin da parkea eraikitzeko proposamena, eta, horrez gain, txikienen behar nabari bati, jolasteko tokiaren beharrari, erantzun nahi izan dio.

Ideiak ustekabean harrapatu zituen ikasleak, lehenengo saioetan eman zituzten erantzunek erakusten dutenaren arabera. Orokorrean, ikastetxearen ingurua ontzat ematen zutela zirudien, nahiz eta txikienentzat oso arriskutsuak diren harmailak egon, asteburuetan gazteen bisita izan (eta, ikasleek salatzen dutenez, txiza-usainak aste



*Oso toki onean egon arren, Ugaro Herri Eskolak jolastordurako azpiegiturak konpartitzeak dakartzan eragozpenak nozitzen ditu.*

osoan zehar iraun), eta Legorretako jaietan barrakak bertan ipini.

Eskolaren inguruak parke bihurtzeko ideiari bikain iritzi zioten guztiek. Haur Hezkuntzako hirugarren taldekoek, adibidez, honako elkarrizketa hau izan zuten irakaslearekin, parkearen balizko kokalekuari buruz:

Irakaslea: —Non kokatuko zenukete parkea?
Ander M.: —Portxean, komunen ondoan. Txirristatik komunera zuzen joateko moduan.
Sara: —Futbol-zelaian.
Haur talde batek: —Ez, futbolean jolastu behar dugu.
Iñigo: —Kiroldegi eta belardiaren artean, bizikleten aparkalekua errespetatuz, hesiaren ondoan.
Oier: —Bi parke egin, bat portxean eta beste bat belarraren ondoan.
Irakaslea: —Aukera hauetako bakoitzak zein abantaila ditu? Portxean.
Ander M.: —Euria egiten duenean ez gara bustiko.
Iñigo: —Baina txirrista ezin da oso altua izan.
Irakaslea: —Belardiaren ondoan.
Sara: —Euria egiten duenean busti egingo gara, baina txirrista altuagoa izan daiteke. Parkea zelaiaren ondoan egiten badugu, estalia izan daiteke.
Irakaslea: —Eta mahaiak eta bankuak zer?
Oier: —Kartetan jolasteko...
Ander M.: —Kiroldegiko bankuetan jolas gaitezke".





*Pabilioiaren muturretako bat, bizikleten aparkalekuaren ondoan.*

Txikienen arteko elkarrizketa entzunda, erraz imajina dezakegu nola garatu zen parkearen proiektua Lehen Hezkuntzako mailetan. Hirugarren mailakoek autokritika zantzuak ere erakutsi zituzten. Eztabaida honetan ari zirela, Haur Hezkuntzako ikasleei ematen zaien tratuari buruzko gogoeta sortu zen. Argi geratu zitzaien txikiek lekua behar dutela. Parkea behar-beharrezkoa da, eta bi alde izan behar ditu: txikientzakoa, haiek jolasteko ekipamendu egokiarekin, eta handientzakoa. Laugarren mailako taldeak elkarrizketa egin zion alkateari, aldizkarian argitaratzeko. Seigarren mailakoek, inork iradokizunik egin gabe, Haur Hezkuntzako ikasleentzako berdegunea behar dela erabaki zuten, gehiengoaren aldekotasunaz. Familiek inkesta txiki baten bitartez hartu zuten parte; %50ek baino gehiagok erantzun zioten inkestari, beste ekarpen batzuk egiteaz gain.

Iradokizunotan oinarrituta (eta irakasleenetan, horiek ere hartu baitute parte programan, jakina), kiroldegiko harmailak kentzea eta, florari eta diseinuari dagokienez, herriko beste lorategiekin bat datorren parkea eratzea proposatzeko proiektua prestatzen hasi ziren.



*Pabilioia gauetan elkartzeko ere erabiltzen dute herriko gazteek.*



2001ean ezarri zituzten 10 eguzki-panelen ikuspegia. Panelok eraldatzen duten energiaren eraginez, urtean 390 kg $CO_2$ gutxiago igortzen dira atmosferara.

Azken idazkuntza eginda, Udalari aurkeztu diote, azter dezan. Ugaro Herri Eskolak lortu egingo du parkea, ziur, eguzki-energia erabiltzeko panelak lortu zituen bezala.

Panelak Legorretako eskolaren ingurumen-proiektu garrantzitsuena izan ziren, eta, haiei esker, Greenpeacek bultzatutako Eguzki–eskolen Sareko lehenengo zentroa izan zen estatu osoan. Hori 2001eko otsailean izan zen. Ugaro Herri Eskolak herriko Eredu-Enea kooperatibaren finantzaketari esker lortu zuen bere asmoa; kooperatibak Mezenasena egin zuen, hamar eguzki-plakak ipintzeko behar izan ziren 9.000 inguru euroak ordainduz.

*Askotan, dirua garrantzitsuena dela dirudi, baina hori ez da egia; beharrezkoena proiektu argi bat edukitzea da. Ingurumen-hezkuntza ikastetxe guztietan lantzen da, baina proiektu zehatzik gabe, oso zaila da emaitzarik lortzea. Horregatik, gauzak egin nahi izatea da lehenengoa; dirua ondoren etorriko da, lehenago edo geroago,* azaldu digu ikastetxeko zuzendari Iñaki Mezquitak. Panelak eta transformadorea ipintzeko ez zen arazo handirik izan. Oztopoak plakek ekoitzitako energia erabili nahi izan zutenean heldu zen. Eskolari hainbeste erabilera didaktiko eman zizkion prozesu praktikoa hanka–motz geratzen zen. Nola defenda daitezke eguzki-energiaren onurak, gero, energia ekoizteko beste bideen mailan ezin jarri badaiteke?



Eguzki-panelek darabiltzaten aldagai metodologikoak kontrolatzen ditu ordenagailu honek.





Energia aurreztera bultzatzeko mezuak, argiaren etengailuetatik hurbil.

*Bai, urtebete luze behar izan genuen elektrizitate-konpainia batean sartzeko, eta, dagoeneko, hiru kontratu mota izan ditugu, arlo horretako legerian dauden hutsuneak direla eta. Azkenik sortu egin zen legea, eta beste ikastetxe batzuk ere animatzea lortu dugu,* esan digu Iñaki Mezquitak. Orain, panel gehiago ipini eta toki hobea aurkitu nahi diete eskolako hegoaldeko fatxadan, orain bezala. Oraingoz, Ugaro Herri Eskolak 787 kWh inguru ekoizten ditu urtean; horrela, atmosferara 390 kg $CO_2$ igortzea saihesten dute.

Legorretako eskolak gauzatu duen beste proiektu batek ere herriko beste kooperatiba baten lankidetza lortu du: Ederfil kooperatibak eman ditu gizarte-helburuetarako



Ugaro Herri Eskolako berotegiaren itxura. Hor, eguzki-energiak modu konbentzionalean dihardu.

gordetako etekinen zati bat, energia aurrezteko programaren atal bat finantzatzeko. *Ingurumen-kalitatearen aldeko programa ikastetxearen eguneroko bizimoduan garatzen dugu, elektrizitatea, ura edo berogailua erabiltzean: esaterako, martxan jarri genituen lehenengo neurrietako bat ateak aldatzea izan zen, beroa ez galtzeko. Ederfilek uraren aurrezpenean lagundu digu*, kontatu digu ikastetxeko idazkari Maribe Goiburuk. Hori egiaztatzeko, gimnasioko aldageletara joan besterik ez duzue: itxuraz, konketa eta dutxetako iturriak arruntak dira, baina haien diseinuak uraren mikrodifusioa ahalbidetzen du, eta horrek %50 aurrezteko aukera ematen du.



*Ikastetxeko pasilloak apaintzen dituzten horma-irudiak.*

Azken galdera saihestezina da. Balioesten dute ikasleek ahalegin handi hori? *Proiektu horien emaitzak ondo hautematen dira eskolan: umeak sentiberak dira birziklapenarekiko, eguzki-energiaren onurekiko edo berdeguneen beharrarekiko; eta herriko gainerakoen bizimoduan ere pixkanaka–pixkanaka eragina baduela ikusten dugu,* azaltzen digu Inés Elorzak.



# Beste esperientzia interesgarri batzuk

## Ekintza Osagarriak eta Eskolaz Kanpokoak garatzean datzan Bizkaiko ACEX programaren baitako bi esperientzia

### Ezagutu Barakaldo

Ekimen hau duela zazpi urte sortu zen, ikasleei Barakaldo herriaren errealitate historikoa eta ingurumen-alderdiak ezagutarazteko xedez. Egoitza Larrea ikastetxean du, eta udalerriko ikastetxe guztiei zuzentzen zaie. Astero irteera antolatzean datza, eta oinarrizko hainbat ibilbide hartzen ditu. Garrantzitsuena, Mendierrekako igoera da; bertan, inguru horretako Historia eta Ingurumen Zentroa bisitatzen da lehenengo, eta, ondoren, Castaños errekan eta basoan zehar ibilaldia egiten da, bertako zuhaitzak eta errekako flora eta fauna aztertzeko. Beste programa batean, Udaletxera egiten da bisita; han, Udalaren osoko bilkura txikia antolatu eta udal sail guztien funtzionamendua ezagutzen da.



*Lorrindutako herri industrialtzat hartzen bada ere, ezagutzea merezi duten balio handiko inguruak ditu Barakaldok, paisaiari eta ingurumenari dagokienez.*

### Ezagutu Portugalete

Programa honen helburua Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei herria erakustea da, hondakinen birziklapena eta ingurumenarekin loturiko beste hainbat alderdi ahaztu gabe. Ibilbidea Nerbioi ibaiaren itsasadarrera ere hurbiltzen da, ikusteko soilik, oraingoz. *Itsasadarreko urak aztertu nahi izan ditugu, baina ez daukagu baliabiderik; mareak oso behean egon behar du, hurbildu ahal izateko*, azaldu digu Timik, begiraleetako batek.

## Mendi-irteerak Beasainen

Beasaingo ikastetxeen eta Beasaingo Mendizaleen Elkartearen artean antolatutako ekimen honek 180 bat lagun biltzen ditu —gurasoak eta umeak zenbatuta—, urtean Gipuzkoako mendietara egiten diren zortzi irteeretako bakoitzean. Duela gutxi, Murumendira, Gorosti–mendira eta Uzturrera igo ziren. Eskalada egiteko txangoak eta eskiatzeko asteburuko irteerak ere antolatzen dituzte.

*Pentsa dezagun jaia toki eta une jakin batean gizarte-energiak baliabide materialekin batzen dituen sistema dela. Jaiak aparteko gertakaritzat hartzeko dugun ohitura edo pentsamoldea baztertu egin behar dugu, aparteko izaera horrexek eragiten baitu jaien ingurumen-ondorioak aintzat ez hartzea; azken batean, "egun bateko kontua da eta". Ikastetxean antolatzen diren jaiak ere hezkuntzaren atal dira.*



# Jai iraunkorragoak

**Ingurumen-hezkuntza jaian:**

- Jakinarazi datozen pertsonei garapen iraunkorrarekin bat datorren jaia dela.
- Jaia iragartzeko kartelетan, argi azaldu eko-jaia, jai iraunkorra edo hondakinik gabeko jaia dela.
- Prestatu jaiaren ingurumen-ezaugarriak azaltzeko inprimakiak.
- Aprobetxatu aukera etorle guztiek lekua garbitzen parte har dezaten.
- Jaia egin eta gero, hondakinen tratamendua egiteko instalazioren bat bisita dezakezue, abian jarri ditugun ingurumen-neurriekin lortu duguna baloratzeko.
- Antolatutako ikuskizunetan (pailazoak, antzezpenak...) ingurumenaren aldeko mezuak sar daitezke.



GAUR EGUNGO kontsumo-gizartean, ospakizunak ondasun eta zerbitzuen kontsumo-maila bizkortzearekin lotzen dira. Horregatik, jaia antolatzen hasten den unean bertan hartu behar dira aintzat ingurumen-irizpideak.

Jaiek pertsonen arteko harreman-prozesuak eta beraien harmena sustatzen dituzte; beraz, oso ingurune egokia dira mezuak barneratzeko. Oro har, jaietako bizipenek aldaketak eragiten dituzte parte hartzen duten pertsonen sozializazioan.

Jaia prestatzean, lekua ere aldarazten da (batzuetan modu itzulezinean aldarazi ere), inguruaren ohiko itxura hausteko eta parte hartzen duten pertsonei, zeharka, jaiaren pertzepzio positibo eta originala iradokitzeko.

## Jaiaren ingurumen-ondorioak

Jaietan, kontsumoa areagotu eta denbora-tarte eta leku txikietan kontzentratzen da. Horrek ingurumen-inpaktu nabaria dakar ondorioz:

- Baliabideak eta energia kontsumitzen dira, bertaratutakoei ondasun eta zerbitzuak emateko.
- Hondakin solidoak, hondakin-urak, atmosferako igorpenak eta zaratak sortzen dira.

Jaiaren sistemaren barruan hainbat motatako informazioa sortzen eta jariatzen da; informazio horrek eragina dauka bai jaian parte hartzen duten eragileen (antolatzaileen eta parte-hartzaileen) arteko harremanean, bai eragileok jaiaren prestaketan, garapenean eta burutzapenean baliabideak eta energia erabiltzeko eran ere.

## Gizartearen inplikazioa eta ingurumen-hezkuntza

Jaiak dirauen artean praktikan jartzen diren ingurumen-ekimenen arrakasta bermatzeko, ezinbestekoa da bertaratutakoen zuzeneko parte-hartzea; horretarako, jendeari informatuta egoteko eta ingurumenarekin loturiko jardueretan esku hartzeko beharrezko elementuak eta pizgarriak eman behar zaizkio. Ingurumena

**Hona hemen jaia antolatzean**



Saihestu egin behar dugu jaiaren eremuak zabortegi bihurtuta geratzea. Horrek kalte egiten die antolatzaileen irudiari eta jaiari berari, gizarte- eta kultura-gertakaria den aldetik.




Publizitatean, jaiaren izaera ekologikoa nabarmentzen badugu, bertaratzen diren pertsonek prestasun eta errespetu handiagoz erantzungo diete denon laguntza eskatzeko zabaldutako mezuei.



zaindu egin behar dela sentiberatzeaz arduratzen den talde berdea sortzea kontuan hartzeko moduko aukera da. Talde horren eginkizuna ingurumenaren kalitatea areagotzeko eta jaiaren pertzepzio positiboa lortzeko taxututako ingurumen–zerbitzuen eraginkortasuna eta erabilera egokia bermatzea da. Jai handietan, ingurumen-koordinazioaz arduratzen den pertsona izendatu beharko litzateke, jasangarritasuna edo iraunkortasuna bermatzen duten ekintzak zuzentzeko.

### Kontuz auzokoekin

Onespen handiagoa dute ingurumenari erreparatuz antolatutako jaiek inolako neurri prebentibo edo zuzentzailerik aurreikusi ez duten jaiek baino. Garrantzitsua da antolatuko dugun jaiak ingurumenari ematen dion nabarmentasunaren berri zabaltzea. Era berean, ondo legoke ikastetxeko jaiak auzoaren ingurumen eta gizarte-beharrizanetan parte izatea, bertan bizi diren pertsonen parte-hartzea ahalbidetuz, edo auzoaren aldeko diru-bilketa antolatuz.

### Jaiak dirauen artean

Bertaratutako pertsonak ingurumenarekin loturiko ekintzetan (esaterako, hondakinak biltontzietan sartu aurreko

**JAIAREN SISTEMA**




bereizketa-lanetan) parte hartzera bultzatzeko jolasak, ginkanak edo bestelako jarduera ludikoak antola daitezke. Zaramara bota ohi ditugun materialak erabiliz jostailuak egiteko tailerrak antolatuz gero, parte hartzaileek jaiaren oroitgarria eraman ahal izango dute etxera. Jolasak eta jarduerak ez ezik, ingurumen-gaiekin (energia berriztagarrien erabilera, ura aurreztea...) loturiko saiakuntzak egiteko tailer zientifikoak ere antola daitezke.

### Jaia amaituta

Komenigarria litzateke jaiaren garapena ebaluatzea eta emaitzen berri ematea, bai ikastetxeko komunikabideen bitartez (ikastetxearen agerkaria, guraso elkartearena, horma-irudiak...), bai herriko hedabideak erabiliz (herriko aldizkaria, irratia...).

### Jaietarako iraunkortasun-printzipioak

- Ez aukeratu erabili eta botatzeko ontzirik. Alderdi hori edarien hornitzaileekin negozia daiteke.
- Berrerabili eta birziklatu hondakinak. Bakarrik gaika biltzeko zirkuitua antolatuta daukaten hondakinak bilduko ditugu bereiz. Udalak biltontzirik ez badauka, alokatu egin daitezke, eta bilketa kontratatu.
- Ez xahutu energiarik. Jai-esparrua argiztatzeko, erabili kontsumo txikiko bonbillak.
- Murriztu uraren kontsumoa eta kutsadura.
- Gutxitu ahalik eta gehien kutsadura akustikoa.
- Ez erabili banako ontzirik saltsa, azukre, gatz eta antzekoetarako.
- Aurrez aztertu gerta litezkeen arriskuak, istripuak saihesteko.
- Aurreikusi jai-esparruan sartzeko eta bertatik irteteko bideak.
- Animatu jendea garraio publikoa erabiltzera, jaira joateko eta itzultzeko.

## aintzakotzat har ditzakegun alderdi anitzetako batzuk



Jaian sortutako hondakinen bilketa lankidetzari eta bizikidetzari buruzko irakasgai bihur dezakegu. Gainera, jostagarri ere egin dezakegu. Erabili irudimena!



Instituzioei eta enpresei jaian parte har dezatela eskatzeak areagotu egiten du jaiarekiko ikusmolde positiboa. Gainera hondakinak gaika hobeto biltzeko materialak utzi ahal dizkigute.





Gaikako bilketa arrakastatsua izan dadin, hobe da biltontziak ez sakabanatu eta eremu bakoitzean multzoka antolatzea. Biltontzietan, geuk egindako kartelak ipin ditzakegu, bakoitzean zer bota behar den argi gera dadin.

*Ikastetxe askotan, jolastokia zementuzko zabaldegi hutsa da; bitxia bada ere, eskola batzuetan ezin da pilotarekin ere jolastu. Toki horri atarramentua ateratzea proposatzen dizuegu, plangintza erraza eginez eta jolas tradizional batzuk berreskuratuz.*

# Jolastokirako errezetak

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- Gorputz hezkuntza.
- Plastika.
- Lengoaia.
- Tutoretza.
- Hizkuntza.

**HELBURUAK**

- Jolas-ordua hobetzea.
- Jolas eta jostailu tradizionalak berreskuratzea eta beste joko batzuk egiteko gauzak biltzea.

**MATERIALAK**

- Harriak, tapoiak, margoak (ahal dela, ekologikoak), zabor artera botatzen diren materialak, egurrezko takoak, klarionak...

## Garapena

**Hasteko**, jolas-ordurako ideia berriak proposatuko ditugu ikasgelan. Honela plantea daiteke gaia: *Zertan jolasten ziren zure aitona-amonak eta gurasoak, haurtzaroan?*

Informazio hori lortzeko, gutun baten bidez jakinarazi ahal diegu familiei jolas-ordua hobetzeko dugun asmoaren berri, eta, bide batez, haien garaiko jolas edo jokorik gogokoenen zerrenda eskatu.

Jolasen prestaketa ikasgaiaren arabera aldatuko dugu: Hizkuntza orduan, jolasen zerrenda eta arauak idatz daitezke, esaterako; Plastikan, jostailu batzuk presta ditzakegu...

Jolasak egiten hasi aurretik, komenigarria litzateke arduren txandak zehaztea: jolastokira zerbait eraman behar bada, edo garbitzeko eta erabilitako gauzak batzeko taldeak antolatu behar badira, adibidez.



## Betiko jolas errazak

**Lurra margotu**
*Trukeme edo txintxirrika*: eredu eta arau ugari daude.
*Twister*: MB jostailu-etxeak merkaturatutako modeloaren ordez, margotutako harriak erabil daitezke.
*Letren jolasa*: letrak laukietan margotzen dira, eta letra horiek erabiliz hitzak osatu eta lurrean idatziko ditugu, klarionez.
*Antzararen jokoa, partxisa, artzain-jokoa, eskailera...*: fitxen ordez, margotutako harriak edo zaramara bota ohi ditugun materialak erabil ditzakegu —esne edo freskagarrien botilen tapoiak, adibidez— .

**Zirkuituak**
Metalezko tapoiak, goiko mailetako ikasleen artetik berreskuratutako kotxetxoak edo auto, animalia eta abarren irudiak margotu zaizkien harriak erabil daitezke.

**Itua**
*Itu* bat marraztu, zirkuluak kolorez margotu eta puntuazioak idatziko ditugu. Jaurtiketa-lerroa markatu eta, banan-banan, txapak, egurrezko takoak, harriak edo bestelako jaurtigaiak botako ditugu iturantz.

**Gauzak berreskuratu**
*Petankak, zibak, tortolosak, kromoak, sehaskatxoak* egiteko lokarriak, gomak, soka.
*Birlak*: litro eta erdiko esne-botilak margotu eta hareaz beteta (edo hutsik) oso aproposak dira bola-jokoan aritzeko.
*Igel-toka*: hondartzan jolasteko baldeak eta estalkiak, tapoiak edo edontzi–azpikoak erabil daitezke.
*Uztaien jokoa* egiteko, seinaleztatzeko konoak eta burdin hariz eta kolorezko paperez egindako uztaiak erabil daitezke.

### Bibliografia


Departamento de Medio Ambiente, Gobierno de Aragón; Servicio de Medio Ambiente, Ayuntamiento de Zaragoza. **Entantarabintantinculado: juegos en los parques**. Zaragoza, 1994.

BARANDIARÁN, J. M. de; MANTEROLA ALDECOA, Ander. **Juegos infantiles en Vasconia**. Labayru Ikastegia. Bilbo, 1993 (353-372. orr.).

BULL, Jane. **El Libro de jardinería**. Molino. Barcelona, 2003.

FERRER SORIA, Isidro. **Piedra a piedra**. Imaginarium. Zaragoza, 2002.




# Bote-bote

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- Gorputz hezkuntza.
- Tutoretza.

**HELBURUAK**

- Haurrek jolasteko aukera ezberdinak izatea.
- Aisialdiaz taldean gozatzea antzinako jolasak berreskuratuz.

**MATERIALAK**

- Kontserba potea.
- Hartxintxarrak.

**Marro, Iturriak, Bote-Bote...** Inoiz entzun al dituzue jolas izen horiek? Ba galdetu zeuen guraso, izeko-osaba, aitona-amonei ea ezagutzen dituzten. Bote-bote izenekoan aritu nahi duzue? Ezkutaketa bezalakoa da baina dibertigarriagoa.

## Jolasa, pausoz pauso



Kontserba pote batean hartxintxarrak sartu eta zapaldu potea harriak ez ateratzeko. Potea astintzean, oso zarata polita ateratzen da.



Hasteko, erabaki ezazue nork emango dion jolasari hasiera, alde batetik; eta bestetik, nor geldituko den. Gero, jarri potea leku estrategiko batean (plaza-



ren erdian, esaterako); bertatik jokalari batek potea ahalik eta urrutien jaurtiko du. Gelditzen denak (A jokalari deituko dugunak) potearen bila



joan eta hasierako lekura bueltatuko du; bitartean, beste jokalari guztiak ezkutatu egingo dira. Orduan, A jokalaria besteen bila aterako da: norbait



ikusten duen bakoitzean, potea dagoen txokora itzuli eta potea eskuz astinduz *bote-bote*… (eta ikusitako lagunaren izena)



esango du. Baina aurkitutako laguna arinago ailegatzen bada poteraino, hori astinduz eta *bote-bote* esanez, berriro ere urrune-



ra botako du, eta lehenago agerian geratu direnak ezkutatu egingo dira. Jokalari guztiak topatutakoan, bukatzen da jolasa.



Jarraitu nahi baldin baduzue, lehen bueltan gelditu denak jaurtiko du potea eta ikusitako lehen laguna geldituko da.

Ohiko jokuak gustuko badituzue, *Jolas-fixategia* zabaldu eta zuen inguruko helduei galdetu.
Fitxa horretan honako datuak apunta ditzakezue:

**Jolasaren izena**

Barruan ala kanpoan jolasteko den.
Zenbat lagunentzakoa den.
Arauak:..........................................................
.......................................................................
Behar duzuen materiala: ......................
.......................................................................
.......................................................................

**Iturria:**
ARRANZ; J.D. **Juegos al aire libre**. Escuela española. Madril, 1995.





# Aquariumera bisitaldia

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- Ingurune natural eta sozialaren ezaguera
- Hizkuntza.

**HELBURUAK**

- Aisialdiko baliabideak ezagutzea.
- Bioaniztasunaz jabetzea.

**MATERIALAK**

- Irudien fotokopia.
- 9 DIN A-5 fitxak garatzeko.
- DIN A-4 bat azala eta kontrazala egiteko.
- Idaztekoa eta margotzekoa.
- Lekeda.

**Eginkizun honetan** aquariuma bisitatzea proposatzen dizuegu. Horretarako, landa-koaderno bat osatu behar duzue, ikusiko duzuen aberastasunaz jabetzeko, batetik, eta berri emateko, bestetik.

## Karta bikoteen jolasa

Klasekoekin akuariumeko bisita egin aurretik, lana banatu behar da. Horretarako, ezkutatutako karta bikoteen jolasaz baliatuko gara. Bi karta berdinak lortzeko, itsasoko biztanleen marrazkien bi fotokopia handitu behar dituzu (marrazki gehiago egin ditzakezue). Kartak bereiztu eta nahasi ondoren, ahoz behera koka itzazu. Txandaka kide bakoitzak bi altxa ditzake, eta bikotea osatuz gero, jarrai dezake kale egin arte.

## Bisitako fitxak osatu

Bakoitzak aurreko pausoan topatutako itsasoko biztanle berberak aurkitu beharko ditu aquariumean, geroago irudia koloreztatu eta fitxan bertan itsasteko.

Horrez gain, horien sailkapena, ezaugarriak... ere zehaztu egin behar dituzue: landareak ala animaliak diren; kasu horretan, ornodunak ala ornogabeak diren; zein itsasotan bizi diren; itsaso horren urak hotzak, epelak edo beroak diren, etab.

Era berean, interesgarria izango da zehaztea galtzeko arriskuan dagoen, edota gizakiok asko ala gutxi harrapatzen dugun...

## Koadernoa egin

Bisita bukatutakoan, ikaskideekin elkartu, topatutakoaren berri eman eta fitxak elkartu. Koadernoaren azala eta aurkibidea idatzi. Dena aurrean izanik, saia zaitezte itsasoko zenbait biztanle aukeratzen: ikusgarriena edo arraroena; aurkitzeko zailena; animalia eta landareen artean sailkatzeko zailena; galtzeko arriskurik handiena duena...











# Gazteak globalizazioaren aurrean

**HELBURUA**

- Gaurko globalizazioak gazteei ere eragiten diela jabetzea.

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- Gizarte zientziak.
- Etika.

**Ekonomiaren arloan**, zerekin du zerikusia globalizazioak? Lehenengo erantzun errazena zera da: enpresa asko herrialde bat baino gehiagotan zabalduta egotearekin eta kapitala munduko toki askotan inbertitzearekin.

Baina, globalizazioak ekonomiari soilik eragiten dio? Galdera horri geure hurbileko errealitatea aztertuz erantzun diezaiokegu. Horretarako, fitxa honetan eskaintzen zaizkizuen taulak bete beharko dituzu.








**1.** Idatzi telebistan, bideoan nahiz zineman ikusi dituzun azken hamar filmen zerrenda. Gogoratzen baduzu, jarri nongo filmeak diren ere.
**Izenburua** ..........
**Euskarria (bideoa, zinema, telebista...)** ..........
**Nazionalitatea** ..........

**2.** Orain, idatz itzazu zure hamar musika talde edo abeslari gustukoenak. Idatzi alboan nongoak diren eta zein hizkuntzatan abesten duten.
**Talde edo abeslariaren izena** ..........
**Nazionalitatea** ..........
**Erabilitako hizkuntza** ..........

**3.** Azkenik, zeintzuk dira gustukoen dituzun hamar jakiak? Bete taula eta saia zaitez zehazten beren jatorria.
**Janaria** ..........
**Jatorria** ..........

Emaitzak aurrean dituzuela, erantzun hurrengo galderei:

- Zein herrialde errepikatu da gehien? Zergatik ote?
- Zure ikaskideen emaitzak eta zeureak desberdinak al dira? Zergatiak.
- Uste duzu beste herrialdeetako gazte askok zeure gustu berdinak dituztela?
- Ondorioak.

**Iturria:**
RODRÍGUEZ GONZÁLEZ, Marta. **Guías praxis para el profesorado de ESO. Ciencias Sociales** (Contenidos, Actividades y Recursos, pág. 784-785). Editorial Praxis. Barcelona, 2001.

# Aisialdia... non? zertarako? norekin?

**HELBURUAK**

- Ingurua ezagutzea eta gizarteak berarekin eratutako elkarrekintzak identifikatzea.
- Ingurumen-arazoentzako irtenbideak proposatzeko gaitasuna garatzea.

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- Gizarte zientziak.
- Tutoretza.
- Hizkuntza.

## Zer da zuretzat aisialdia?

Lehendabizikoz, bakarka, erantzun iezaiozu ondoko galdeketari; ondoren, launaka komentatuko dituzue erantzun ezberdinak. Azkenik, guztion artean eztabaidatu.

**Denbora libre gehiena leku hauetan igarotzen dut (bat aukeratu):**

☐ Etxean ☐ Lagunen edo familiakoen etxean ☐ Auzoan edo herrian ☐ Auzotik kanpo

Beste aukera batzuk: ..............................................................................

**Ekintza hauek egin ohi ditut:**

☐ Telebista ikusi ☐ Ordenagailua erabili ☐ Irakurri ☐ Herrian ibili

☐ Txangoak egin ☐ Zinemara edo kontzertuetara joan ☐ Kirola egin ☐ Tabernetara edo dantzalekuetara joan

☐ Lagunekin kalean edo parkean egon Beste aukera batzuk: ..............................................

**Aisialdiko ekintzetan normalean... egoten naiz (bat aukeratu):**

☐ Lagunekin ☐ Gurasoekin edo anaia-arrebekin ☐ Beste senide batzuekin ☐ Bakarrik

Beste aukera batzuk: ..............................................................................

**Aisialdirako dudan denbora:**

☐ Gehiegizkoa da ☐ Egokia da ☐ Urria da ☐ Gutxiegi da

**Aisialdiko ekintzak hobetzeko zerbait falta zait (bat aukeratu):**

☐ Denbora ☐ Askatasuna ☐ Garraioa ☐ Dirua

☐ Leku egokiak ☐ Lagunak Beste aukera batzuk: ..............................................

## Non daude kokaturik aisialdiko lekuak?

Laukote bakoitzak bere lurraldeko Foru Aldundiko webgunetik auzoko edo herriko A-3 tamainako planoa lortuko du. Talde bakoitzak aisialdiko guneen zerrenda idatzi eta planoan kokatu beharko ditu (toki bakoitzean zer egiten den zehaztuz).

Talde bakoitzak besteei bere bilduma aurkeztuko die, eta guztien artean zerrenda osatuko dute.

## Ondorioak

- Gune horietan, zeure gustuko jarduerak egiten al dira?
- Aipatu topaturiko hutsuneak.
- Zer egin nahi zenukete bertan?
- Proposamenak bildu eta zuen herriko kultur batzordeari bidali.



# Zer egiten duzu astialdian?

## Gazteriak ingurumenaren kudeaketan parte hartzeko proposamena

***Borondatezko lana eta gizarte- nahiz kultura-mugimenduetan parte hartzea ez dira berez jolas-jardueratzat hartzen. Hala ere, maila guztietan hazteko aukera ematen digute.***

***Aintzakotzat hartu behar ditugun ingurumen-arazo asko daude. Ingurumenaren alde borondatezko lana egiteko programen helburua arazo horiek konpontzen lagundu nahi duten pertsonen kezkak batzea da.***

**ASTIALDIARI BEGIRA**, boluntarioen taldea sortzea proposatzen dizuegu. Ondoren, gazteen parte-hartzeari esker garatzen diren ekimen batzuk aurkezten dizkizuegu.

### Hiriko ingurumena

Hiriko ingurumenak jasaten dituen inpaktuen kontrolari dagokionez, isurketak, hondakinen kudeaketako lankidetza eta ingurumena zaintzeko lanen dinamizazioa (kontrol akustikoa, autoen errolda...) dira gehien nabarmentzen diren arloak. Era berean, boluntarioen taldeak hiri eta herrietako flora eta fauna aztertzen, hiriko elementuak zaharberritzen eta, oro har, hiriak hobetzen ere har dezake parte.



*Prestige itsasontziak eragindako hondamendiak argi erakutsi du boluntarioen lanaren balioa.*

### Naturaguneak

Boluntarioek bizi-aniztasuna babesten ere lagun dezakete: mehatxupean dauden espezieak jagon, hegaztiei eraztuna ipini, habiak kontrolatu, ekosistemak zaindu, eta abar.

Taldeok eskualde bateko ondare naturalarekiko sentiberatzeko ekintzak egin ditzakete, bai eta interes historikoa, artistikoa eta etnografikoa duten elementuak (hondar arkeologikoak, adibidez) babesteko kanpainak ere. Halaber, eremu batzuk garbitzen ere lagun dezakete.

## CPN: izadia ezagutu eta babestu

CPN esaten zaie Frantzian, 1972an izadia ezagutu eta babesteko xedez sortu ziren taldeei. 1992an kluben Espainiako Federazioa sortu zen: FCPN. Gaur egun, 60 bat taldek eta 2.000 boluntariok osatzen dute Federazioa. Taldeok egiten dituzten jarduueretako bi kontatuko dizkizuegu hemen: **www.cje.org/fcpn**



***Hartz arre kantabriarra galtzeko zorian dauden espezie ugarietako bat baino ez da.***

### Ibilgailuek errepideetan harrapatutako anfibioak

Igel, apo, arrabio eta bestelako anfibio asko eta asko errepideetan hiltzen dira, batez ere istiletatik hurbil dauden errepideetan. Arazo hori ikusita, FCPNk bideo dokumentala prestatu eta hitzaldiak eman zituen ikastetxeetan. Era berean, altuera txikiko plastikozko hesiak ipini zituzten errepide jakin batzuetako ertzetan; leku horietan, anfibioak erreskatatu ere egin zituzten. Bereziki aipagarria da Extremaduran, *Canal de las Dehesas* izeneko ubide ezagunean, izandako anfibio eta narrasti salbamendua.

### Hartz arrea eta erabilera tradizionalen galera

Hartz arrea Iberiar penintsulan galtzeko arriskuan dauden espezieetakoa da; 60 eta 80 ale bitarteko errolda dago. Espezie hori galtzearen bi arrazoi nagusiak isileko ehiza eta hartzaren habitataren galera dira. FCPNk hartz arre kantabriarra babesteko proiektua jarri zuen martxan; besteak beste, berritu egin zuen basoa, hartzen bizileku garrantzitsu diren eremu batzuetan.

## Ingurumenaren aldeko boluntarioak Euskadin

Eusko Jaurlaritzaren Aztertu programak herritarrak sentiberatzeko bi kanpainatan parte hartzeko aukera ematen du: Azterkostan (itsasertzeko inguruari buruzkoan) eta Ibaialden (ibaiekin loturikoan). Web gunea:

**www.euskadi.net/aztertu**

Horrez gain, beste batzuetan ere aipatu dizuegunez, ingurumena hobetzearen alde diharduten beste hainbat boluntario-talde daude, hala nola:

- Urdaibaiko Galtzagorriak: www.urdaibai.org
- *Peñas Negras* Ingurumen Interpretazioko Zentroko Lagunak: www.euskadi.net/vima_educacion/pnegras0601_c.htm



*Ibaialde kanpainan parte hartzen duten hainbat taldetako arduradunak, irteerak prestatzeko bileretako batean.*

Zenbaki honetako *Klasetik at* atalean ikus dezakezuenez, beste talde asko eta hainbat kanpaina, jarduera, ekintza eta abar daude. Orain, zeuen esku dago bilatzea eta gogokoena aurkitzea. Lehenengo eta behin, saiatu ingurumenarekin zerikusia duten Euskadiko boluntario-taldeak edo programak aurkitzen (IHITZAren 12. zenbakiko *Klasetik at* atalean, autonomia-erkidego osoko boluntarioen plataformak ageri ziren). Bilatu eta gero, dauden proposamenei buruz eztabaida antola dezakezue:

- Zein da, zuen ustez, proposamen erakargarriena?
- Badago kanpainarik egiten ez den leku edo eskualderik?

Azkenik, talde horietako batean parte hartzea proposatzen dizuegu, edo, zergatik ez?, zuen ingurunean laguntza behar duen eremu batera irteerak egin eta zeuen ekintza-programa antolatzea. Anima zaitezte!

# Jolastera!



**Zenbaki honetako** *Jolastokirako errezetak* goiburuko fitxan (16. or.), oraindik ere dibertigarriak izan daitezkeen aspaldiko jolasak berreskuratzeko ideiak eta iradokizunak eman dizkizuegu. Horrelako jolasak biltzen dituzten liburu erakargarrietako baten izenburua ere aipatu dugu: Entantarabintantinculado. Hona hemen liburu horretatik hartutako jolas bat:

## Arrain-jalea

Aprobetxatu lagunekin edo familiarekin egiten diren txango horietako bat; asko bazarete, orduan eta hobeto; eta batzuek 16 urte eta besteek 56 baldin badituzue, ere bai: guzti-guztiontzako jolasa da; hori bai, zuhaitzak dauzkan parke, belardi edo berdegune zabal bat beharko duzue. Gainerako guztia taldeak ipiniko du.

Taldekide bat Arrain-jalea izango da, eta besteek horren aginduak bete beharko dituzte. Jatunak —eskuak luzatuta eta ahoaz arrain gosetiaren keinuak eginez— berak nahi duena oihukatzean, ekinean hasiko da mundu guztia:

ITSASONTZIA esaten badu, berak seinalatzen duen zuhaitzerantz joango zarete.

KOSTA esanez gero, kontrako zuhaitzera joan beharko duzue.

IZARRA entzutean, lurrean eseriko zarete biribilean, oinak elkartuta dituzuela.

SARDINAK: zehaztutako puntu bererantz korrika joan, eta multzo trinko bat osatuko duzue, latako sardinek bezala.

KARRAMARROAK (ziurrenik, hauxe da barregarriena): binaka, ipurdiak bata bestearen kontra jarrita, elkartu eskuak hanken azpitik, eta alborantz ibili (erori gabe mantentzea lortzen baldin baduzue).

ASTOAK: guztiok lau oinean jarri eta arrantzaka hasiko zarete, isildu barik.

Eta noiz amaitzen dira Arrain-jalearen aginduak? Norbait despistatuta harrapatu eta jaten duenean, horri pasatuko dio txanda.

Nahi beste figura asma dezakezue, eta aginduen aukera zabaldu ere egin dezakezue, beste animalia batzuen hotsak imitatuz, esaterako. Hala ere, jolasten hasi aurretik erabaki behar dituzue kodeak.



# «La gente joven quiere que su participación sirva para algo»

***Pilar Abella es la responsable del Servicio de Juventud del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, que el curso pasado elaboró el plan "Kide" para fomentar la participación de la juventud en las cuestiones municipales que le afectan.***

**¿En qué consiste el Plan Kide?**
KIDE es un proyecto de educación para la participación realizado en el ámbito educativo (aulas y grupos de tiempo libre) con grupos de 12 a 17 años de edad. Comenzamos sondeando los intereses y sugerencias de la juventud sobre el tiempo libre en Gasteiz, y la respuesta fue su preocupación por la movilidad en la ciudad. Entonces decidimos acercarles un proyecto municipal en construcción, con el compromiso de recoger sus aportaciones, siempre en la medida de lo posible. Así que el tema sobre el que se trabajó fue el proyecto municipal *Sendas Urbanas*: vías urbanas para la movilidad peatonal y ciclista que mejoran la comunicación entre el centro, los barrios y el área natural circundante.

**¿Cómo han conseguido que se interesen por un tema tan técnico como los carriles-bici?**
Nos planteamos cómo hacer que personas jóvenes se interesen por el medio ambiente y cómo transmitirles la importancia de su implicación en la mejora de su entorno. Sabemos, como educadores, que si somos capaces de trabajar sobre temas cercanos, la gente joven hace suya la responsabilidad de actuar en la mejora de su entorno.

**¿Ha habido un proceso previo para formarles en participación?**
Iniciamos el trabajo desde la vivencia de situaciones de participación que obligan a la reflexión sobre lo que es y no es participar, y pasamos a aplicar dinámicas participativas al tema elegido, con el objeto de realizar un ejercicio práctico de participación. En esta ocasión, cada grupo fue informado del proyecto de sendas urbanas y de su posibilidad de incidir en el mismo a través de su trabajo. Eligieron una senda cercana a su barrio. Armados de máquinas fotográficas, bicis, sillas de ruedas y bastones de invidentes, recorrieron las sendas poniéndose en la piel de diferentes tipos de personas: gente anciana, caminantes jóvenes, ciclistas, invidentes y personas discapacitadas. Y de ese modo fueron plasmando rigurosamente los puntos positivos y negativos de las sendas.



*Pilar Abella en el exterior de la Casa Etxanobe, sede del Servicio de Juventud del Ayuntamiento.*

De nuevo en el aula, revisaron las fotografías, pusieron en común sus impresiones, debatieron soluciones y propuestas de mejora y tuvieron que llegar a un consenso sobre el trabajo a presentar.

**¿Cómo fue el proceso hasta llegar al Ayuntamiento?**
Cada grupo se centró en la elección de dos representantes, que acudieron a la Comisión de personas jóvenes. En ella, los representantes dan a conocer el trabajo al resto de los grupos y debaten las propuestas. Del trabajo de la comisión surge un manifiesto. Para garantizar la transparencia del proceso, los documentos del manifiesto y las propuestas se devuelven a los representantes para que sean validados en sus grupos de origen. Finalmente, la Comisión de personas Jóvenes de KIDE elige, a su vez, a las que formarán el Comité encargado de solicitar un Pleno municipal.

**¿Cómo viven la responsabilidad de ser parte activa de su Ayuntamiento?**
Insisten en que necesitan tiempo para exponer lo que han trabajado, en que se les escuche, y sobre todo, en que esperan que sirva para algo. Durante el proceso han ido tomando conciencia de la importancia y el esfuerzo que supone participar; han adquirido conocimientos prácticos y habilidades en el diálogo y la comunicación; se van a *medir* con las personas adultas en el terreno donde se toman las decisiones; y se han tomado muy en serio su papel, respondiendo al reto lanzado y ejerciendo con responsabilidad la oportunidad de participar. Por nuestra parte, preparamos el Pleno con los grupos políticos, especialmente con el departamento implicado en el proyecto de las Sendas, de modo que se les pueda dar una primera contestación a lo planteado, a la espera de trabajar más despacio la incorporación de las propuestas al proyecto. Nuestro compromiso es devolverles, al cabo de un año, el estado del proyecto con las correcciones incorporadas, como resultado de su trabajo.





**Euskalerriko Eskautak:**

# Txangoak eta udako kanpamentuak baino askoz gehiago

## Punttu berdea

IRATXE IBARRA. Markinan jaioa, 1974an. 12 urterekin hasi zen bertsoa lantzen, Jon Lopategirekin. Euskal filologia ikasi zuen. Eskolarteko txapelketetan birritan geratu zen bigarren, Bizkaikoan eta Euskal Herrikoan. Bizkaiko Txapelketa nagusian finalean izana da lau aldiz.

*Interneten sartuta*
*jira eta bira*
*gero telebistaren*
*hotsa ta distira.*
*Beti ezin da egon*
*pantailei begira*
*motxila hartu eta*
*goazen mendira,*
*pelikula onenak*
*han ikusten dira.*

*Lehenengo hondartzara*
*mendira ondoren*
*gero parkean hartu*
*daiteke atseden.*
*Naturaz gozatzeko*
*zenbat modu dauden!*
*Aproba egin ezik*
*orain eta hemen,*
*ez duzue jakingo*
*zer galtzen duzuen.*

Doinua: Antton eta Maria

ASTIALDIARI BURUZ mintzatzean, eskauten mugimenduak aipu berezia merezi du, batez ere, aisiaren arloko programa hezigarriak garatzen daramatzan urte ugariengatik.

Irabazi asmorik ez duen elkarte honek 1956an hasi zuen bere bidea; ordudanik, 8 eta 19 urte bitarteko gazteen taldeekin jardun du. Eskauten goiburuetako bat mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzea da, kristau-ikuspuntuan oinarriturik, eta antolatzen dituzten jarduera guzti-guztietara daramate euren filosofia; hirian, herrian eta, bereziki, inguru naturalean egiten dute lan.

Elkarteak prestakuntza ematen die geroago beste talde batzuen arduradun izango diren begiraleei; taldeokin eguna edo astebura pasatzeko irteerak eta kanpamentuak egiten dituzte. Baina horrez guztiaz gain, antzerki-jaialdiak, jolasak auzoan, tailerrak, kirolak eta abar antolatzen dituzte.

Euskal federazioa 60tik gora taldek osatzen dute. Haiengana hurbildu eta beraien proposamenen, txangoen, programen eta abarren berri jakin nahi baduzue, bulego bana daukazue EAEko hiru hiriburuetan. Kontsultatu web gunea:

**www.eskaut.org**



*Ekosistemarekiko begirunea eskauten berezitasunetako bat izan da betidanik.*
GOITIBERA

Era berean, ezin dugu ahaztu eskautek argitaratzen duten aldizkariaren izena: Goitibera. Hezitzaileek hezitzaileentzat egindako hilabetekaria da. Bertan, besteak beste, jolasak, abestiak eta mendi-ibilbideak aurkituko dituzue, eta hainbat gai interesgarri buruz mintzatzen dira, fededunen ikuspuntutik beti. Aldizkaria hobeto ezagutu nahi baduzue, hementxe daukazue web gunea:

**www.barria.net/goitibera**

## SARETIK BUELTAKA

Zure aisia, haien lana
**www.aisilan.com**
AISILAN aisia kudeatzeko enpresa da eta Zornotzan (Bizkaian) dago. Partikularrei, ikastetxeei eta bestelakoei




zuzenduriko mota guztietako jarduerak eskaintzen ditu. Enpresaren web gunean, besteak beste, aisiarako parke, tailer eta diskoteka mugigarrien inguruko informazioa aurkituko duzue. Oso interesgarria da udalekuei buruzko atala, aterpetxe batean denboraldi atsegina nola igaro azaltzen du eta: joko eta kirol tradizionalak, mendi-ibilbideak, birziklatzeko tailerrak eta abar.




Turismo-agenda bertatik bertara
**www.destinospaisvasco.com**
Dirudienez, gure mugetatik hara joan arte, ez ohi diegu mapa, kultura-agenda, musika-eskaintza eta abarri begiratzen. Dena den, astialdiko aukerak ugari-ugariak dira EAEko hiru lurraldeetan. Web gune honetan, Euskadiri buruzko informazio turistikoa aurkituko duzue, zeuen hirian

### Ez dago aspertzerik

# Gazteentzako aisia-programak

**BUFFF!** Zer egingo dut larunbat honetan? Txakur txikirik ere ez daukat!

Ondo pasatzeko, dirua ezinbestekoa dela uste duzue oraindik? Horrek esan nahi du oraindik ez dituzuela ezagutzen Gasteiz, Donostia eta Bilboko udalek 14 urtetik gorako gazteentzat antolatzen dituzten gaueko jarduerak.

Bilbotarrok, *Bilbo gaua* zer den oraindik ez badakizue, ez zaudete batere modan. *Bilbo gaua* Bizkaiko hiriburuko hainbat gizarte–etxetan (Errekalden, Zorrotzan, Deustun...) garatzen den programa da.



*Gauekoak-en egindako erakustaldia, tuning tailer batean.* ASIER BASTIDA

Parte hartzen duten elkarte ugarien bidez, aukera anitz eskaintzen dizkizue asteburuetarako (22:00etatik 24:00etara, orokorrean). Alde batetik, *Gaikako gauak* deritzon programazioa dago, izenak adierazten duenez, gai zehatzei buruz mintzatzeko antolatua (esaterako, inauteriak, San Valentin eguna...); bigarrenik, iraupen ezberdineko ikastaroak eta doako jarduerak biltzen ditu, hala nola, perkusioa, yoga, sabelaren dantza, ligatzeko teknikak, planetariuma...). Azkenik, kuota txiki-txikia ordaintzea eskatzen duten ikastaroak daude (txikung, kapoeira...). Xehetasun gehiago jakin nahi baduzue, begiratu

**www.bilbao.net/**
**bilbao.gaua**

web gunean. Horrela, gainera, onura handia ekarriko dizuen txartela nola lortu ere jakin ahalko duzue.

Gasteizen, *Gauekoak* programa dago: doako edo oso kuota txikiko ikastaroak ez ezik, zinemaldiak, kontzertuak, literatura edo musika-lehiaketak eta abar antolatzen dituzte. Kuota txikiko ikastaroen artean, honako hauek dituzue: birziklapena, astrologia, gitarra flamenkoa, izotz gaineko kirol anitz... Azkar ibili, toki kopuru mugatua dago eta. Hauxe da web gunea:

**www.gauekoak.org**

Donostiako Udalak ere antolatzen ditu gaueko jarduerak: zinema, internet, ikastaroak... Hala ere, aurten, programazioa eten egin da, udalak izan dituen arazo teknikoengatik. Datorren ikasturtean berriro jarriko dute abian:

**www.enteraT.com/**
**denoche_gauon.htm**

## Irratsaioa

### Irratiz ere egiten da bidaia

# Levando anclas

**(Radio Euskadi-n igandero 22:05ean)**

**IRRATSAIO HONEK** hogei urte bete ditu 2004an, Roge Blasco kazetariaren eskutik. Segur aski, noizbait entzun duzue *Doctor Livingstone supongo* izenburua; kazetari berak ETBn aurkezten zuen programa zen, eta horretan ere, bidaiak zituen mintzagai. *Tierra a la vista* programan (la 2en, TVEn) ere egin zuen lan, eta zenbait egunkaritan ere egin izan ditu kolaborazioak.

Horrelako programetan ibilbide luzea egin badu ere, oraindik ez da bidaia egiteaz eta beste mundu batzuk aurkitzeaz nekatu; Rogek berak dioenez, herri bakoitzak bere alde berezia du.

Zuen kabuz heldu ahal zareten geografia-esparrua oraindik murritz samarra bada, kazetari bilbotar honen saioak entzutea bidaia egiteko eta beste kontinente batzuetan bizi izandako esperientziak ezagutzeko aukera bikaina da.

### Boluntarioei zuzenduriko proiektuak

# Urdaibai Fundazioa

bertan *giri* izan ahal izateko. Gune horretatik oso informazio interesgarria lortzeko bidea irispidea izango duzue: parke eta erreserba naturalak, turismo aktiboko programak (eskalada, piraguismoa...), hainbat herritako jaietako egitarauak eta abar.



*Ontxene landetxetik hurbil dauden lurren ikuspegia.*

**IRABAZI ASMORIK** gabeko erakunde hau 2002an eratu zen, gure ondare naturalaren gestioa hobetzeko eta bioaniztasuna babesteko asmo sendoarekin. Horretarako, hainbat ekintza gauzatu eta gauzatzen dituzte.

Hona hemen boluntario taldeen lankidetzari esker egin dituzten proiektuetako batzuk:

**Ciconia proiektua**

Helburua Zikoina Zuriaren (*Ciconia Ciconia*) populazioa indartzea da. Proiektu horretan, eskualdeko udalek eta Urdaibaiko Galtzagorriak boluntario sareak hartzen dute parte.

**Quercus proiektua**

Beste helburu garrantzitsu bat baso autoktonoa berreskuratzea da. Urtearen hasieran, hamabi boluntariok osatutako taldeak hektarea bat baino gehiagoko lursaila prestatu eta landatu zuen Busturiko Ontxene Landetxearen inguruetan.

*fundacionurdaibai@*
*euskalnet.net*

# AMPAs de Bilbao crean un grupo de tiempo libre

***Josetxo Alvarez es un veterano militante del movimiento ecologista, además de profesor en el Instituto de Derio. Pero también es uno de los impulsores del grupo de tiempo libre que han puesto en marcha las AMPAs de los colegios públicos de Bilbao Pagasarribide, Viuda de Epalza y García Rivero, con el fin de ofrecer un ocio laico, euskaldun y ecologista.***

**¿Cómo surgió este grupo de tiempo libre intercentros?**

La idea parte de tres amigos que teníamos a nuestros hijos e hijas en los tres centros, hace algo más de seis años. Veíamos que el alumnado de estas escuelas, ubicadas en una zona completamente urbana, no tenía opciones alternativas de tiempo libre que no fueran las que ofrecía la Iglesia católica. Y también nos interesaba el asunto del euskara.

**En Bilbao es muy difícil conseguir que los niños y las niñas hablen en euskara fuera de clase.**

Somos conscientes de que los chavales y chavalas tienen claro que el lenguaje de la calle es el castellano, por lo que el montar el grupo entre tres escuelas permitía crear una relación nueva entre ellos, que salieran de sus cuadrillas habituales.

**Para eso también hay que cambiar de ambiente.**

Efectivamente. El tercer motivo que nos llevó a poner en marcha este grupo de tiempo libre era el descubrimiento de otros paisajes, de que percibieran cosas que no tienen en la ciudad, que salieran al monte.

**¿Cuáles son vuestras actividades habituales?**

En principio tenemos una salida al mes a montes de Euskal Herria, sobre todo a los de Bizkaia. Acabamos de estar en Urkiola y Karrantza. Luego, con los y las mayores organizamos estancias de dos días en un albergue un par de veces al año, y ya, a finales de junio, un campamento. Conociendo el clima de nuestro país, siempre que planeamos una salida, hay un plan B para disfrutar del tiempo a cubierto, como ya nos ocurrió desde la primera salida, que fue al valle de Atxondo, y que pasamos al final en los frontones de Axpe y Arrazola.

**Sólo tenéis una salida al mes; ¿qué plan hay para el resto de los fines de semana?**

Hemos intentado organizar actividades en un local, pero es muy difícil encontrar uno en Bilbao que reúna ciertas condiciones y no sea territorio de la Iglesia.

**¿Qué queréis hacer en ese local, en caso de encontrarlo?**

Nada del otro mundo; que puedan jugar a las cartas o al ping-pong, pero sobre todo que sea de ellos y ellas, algo muy importante a la edad de 12 y 13 años.

**¿Cómo financiáis las actividades?**

Con nuestras propias aportaciones, que suponen seis euros por niño y salida. Además tenemos una subvención del Ayuntamiento de Bilbao que nos sirve para completar los gastos que supone la contratación de monitores. Y, luego, mucha imaginación.



*El CEP Pagasarribide, a las afueras de Bilbao.*



*El Centro Maestro García Rivero, en Atxuri.*



*El Centro Viuda de Epalza, en la calle Tívoli.*



*Dinosauroen irudikapenak oso erakargarriak dira beti, batez ere, dinosauroen arrasto fosilduak ikusteko aukera izanez gero.* K.A.

# Karpin Abenturako terrasauroa

**AISIALDIKO ESKAINTZA** berri horrek dinosauroak bizi ziren garaian gure planeta nolakoa izan zitekeen imajinatzeko aukera ematen digu, Terrasauro horretan eskala errealean aurkitzen ditugun berreraikuntzei esker. Izan ere, bertan *Tiranosaurio rex* eta beste hainbat animaliaren 10 erreplika bizidun eta 6 erreplika estatiko daude, 20 metroko Diplodokoarena barne.

Paleontologiako adituek gidaturik, aztarnak, fosilak, indusketa paleontologikoen erakusgarri bat, eta kume batzuk oskoletik nola irteten diren erakutsiko digun inkubagailua ikusi ahal izango ditugu instalazio horietan, 300 metroko ibilbidean zehar.

Atrakzio *jurasiko* horiek guztiak gorabehera, parkeak ez du fauna ezagutzeko ikasgelaren itxura galdu, jarduera hori *Animalia Karpin* aldean mantentzen baita, bertoko faunaren eremuan: *Etxekoak* deritzon esparruak euskal artzain-txakurra, latxa ardia eta Karrantzakoa, euskal ponia, euskal oiloa eta bertoko beste arraza batzuk hurbiletik ezagutzeko aukera ematen digu.



*Bertoko faunak toki nabaria du Karpin Parkean.* KARPIN ABENTURA




**Karpin Abentura, Karrantza: 944 479 206 / 946 107 066**

## Baliabideak Interneten




**www.xedera.com**

Web gune honetan, hizkuntzarekin zerikusia duten joko tradizionaletan aritu gaitezke: hala nola gurutzegrama, letra-zopa eta sarean aritzeko zenbait jokotan. Euskaraz zein gaztelaniaz jolas daiteke.

**www.uam.es/otros/uamsolidaria/ambiental.htm**

Parte-hartzea eta borondatezko lana sustatzen dituen oso esperientzia interesgarria da, unibertsitarioen eremuan oinarritua. Madrilgo Unibertsitate Autonomoak ingurumenarekin loturiko gaiei buruzko informazio-buletinoaren bitartez unibertsitarioen komunitatearen kezkak jaso eta hobekuntza-proiektuak bultzatzen ditu; ildo horretan, esaterako, garapen iraunkorrari laguntzen dioten garraiobideei buruzko informazioa zabaldu dute.




**www.ecoterra.org/html/com/volunt.html**

*Fundación Tierra* deritzonak ingurumen gaien zabalkundean eta ingurumenarekiko sentiberatze–lanetan parte hartu nahi duten profesionalei aukera hori errazteko programa bat dauka. Era berean, Suplemento de Perspectiva Escolar izenburuko agerkari monografiko interesgarria ere kontsulta daiteke bertan.

# Material didaktikoak

## Irakurtzeko edo kontsultatzeko bibliografia

CEIDAn dauden eta aholkatu ahal dizkizuegun material guztietatik, lagin txiki bat aukeratu dugu, atalez atal. Lehenengo multzoan, zaramara bota ohi diren materialak erabiliz jolastekoak dauzkagu, batez ere txikienei begira:




TABARA, P. **Juguetes nuevos de cosas viejas**. Peñalba Impresión. León, 1994.




MARTINEZ, A. **¡No lo tires, juega!** Didaco SA. Barcelona, 1995.

### JOKOA

CEIDAn ESKURAGARRIA




## Ekoetxea

Jokabide ekologikoen simulazio-jokoa. Rol-joko honen bitartez, kontsumoaren puntu beltzak izan daitezkeen alderdi guztien errepaso zehatza egiten da, taldeka. Era berean, etxean bertan garatu daitezkeen jarrera eta jokabide ekologikoak ere aurkezten dira.

### ALDIZKARIA

## Aisia biziz

Duela gutxi argitaratzen hasi diren aldizkari honek errepaso zehatza egiten du umeekin astialdian erabil ditzakegun baliabideetan zehar: argitalpenak, ipuinak, jostailu hezigarriak eta zeharkako gai ugari lantzeko beste bitarteko asko.




### MULTIMEDIA

## Narigota

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila eta Bizkaiko Foru Aldundia. Gamepro, Bilbo 2003.

Joko honetako protagonista Narigota izeneko ur tanta da, eta ura irudikatzen du baliabidea den aldetik. Pertsonaia horren bidez, ikasleek nitratoen eta lurra lorrindu nahi duten beste kutsagarri batzuen kontrako borrokan hartu ahal izango dute parte. Ceidan eskura daiteke.




## Películas para usar en el aula

MARTINEZ, J. UNED. Madril, 2003.

Bideoak historia, geografia, hiriko bizimodua, artea eta beste hainbat irakasgai lantzeko eta ikasleak (bereziki Bigarren Hezkuntzakoak) motibatzeko duen aldakortasunari buruz mintzatzen zaigu material honetan. UNEDen Liburudenda Nagusian eskura daiteke, Madrilen (Bravo Murillo, 38), edo posta elektronikoz eskatu:

**libreria@adm.uned.es**

### EKIPAMENDUAK



*Arrokaundieta inguruak bista paregabeak ditu.*

## Joko Kooperatiboen Baliabide Zentroa

Lankidetza eta Garapenerako InteRed GKEak abian jarri duen zentro berezia da, eta irakasleei, astialdiko begiraleei, familiei eta bestelako hezitzaile guztiei jolasteko eta elkartasuna, lankidetza eta elkarrekiko begirunea sustatzeko materiala eskaintzea du helburu. Maileguan uzteko material asko daukate, eta euskarazko zein gaztelaniazko itzulpena ere egin dute. Materialak, 943 293 847 telefono zenbakira deituta edo 943 291 986 fax zenbakiaren bitartez eska daitezke; baita GKEaren egoitzan bertan: Donostiako Frantzia pasealekua, 8-1. Iosune Igoak egingo dizue arreta. www.kometak.com




Bigarren multzoan, joko tradizionalen mundua erabiltzen dutenak: IGERABIDE, JK. **Mintzo naiz isilik**. Igarkizunekin jolasean. Elkarlanean. Iruñea, 2001.

Azkenik, hirugarren multzoan, aisiako jokabide batzuek ingurumenean duten eraginari buruz mintzo direnak daude:




MASTNY, LISA. **Ekoturismoa. Nazioarteko turismorako bide berriak.** Bakeaz, Bilbao, 2003. Gaztelaniaz ere eskura daiteke: **Ecoturismo. Nuevos caminos para el turismo internacional.**



## Itsaslapurren etxea

Arrokaundieta aterpetxean dago, Pasaian, eta Urtxintxa Eskolak —batez ere aisiaren arloan diharduenak— kudeatzen du. Urte osoan dago zabalik, eta hainbat jarduera mota eskaintzen ditu: animazioa, antzerkia, turismoa, abenturak... bai eta lurrarekin eta itsasoarekin loturiko jokoak ere. Eurek argitaratutako materialak erabiltzen dituzte, esaterako, *Euskal Jolasen Bilduma I* eta *II* izenburuko CD-Romak. Beste aterpetxe bat dute Tertangan, Urduñatik hurbil, Salbada mendilerroaren hegal batean (Araban). Eskolaren web gunean, argibide gehiago aurkituko dituzue, bai eta aisiari buruzko prestakuntza ikastaro bat ere:

www.urtxintxa.org



*Lankidetzan oinarrituriko jolasei buruzko lantegiek hezkuntzazko bitarteko ugari eskaintzen dizkiete irakasleei.*

## ZERBITZUAK



*Keimak adin guztietako pertsonentzako ekintzak antolatzen ditu.*

### Keima: ingurumen hezkuntza eta aisialdia edonon

Keima Eusko Jaurlaritzak 1999an diruz lagundutako enplegu eta prestakuntza programaren ondorioz sortutako enpresa da, eta Gaztaroa-Sartu elkarteak kudeatzen du (Bilbon). Keima egitura ekonomiko solidario eta ez-bazterga-rriak sortzeko erronka daukan REAS (Ekonomia Solidarioko Sarea) deritzonean dago sarturik, eta bere helmuga pertsona eta ingurua, bitartekoa barik, ardatz eta helburu izan daitezen lortzea da, pertsona guztientzako baldintza duinak erdiestearren.

Keimak edozein adinetako pertsonak ditu xede, gaztelaniaz zein euskaraz, aisia, ingurumen eta animazio arloetan. Programa ludikoak antolatzen ditu gizarte-etxe, udaleku eta antzekoetan, bai eta kultura-asteak, udalekuak, ingurumen-hezkuntzako tailerrak eta ikastaroak ere.

✆ 944 792 255
keima@sartu.org
www.reasnet.com/keima

## IKASTAROAK

- Turismo, Aisia, Astialdi eta Ingurumen gaietako Komunikatzaile Aditua izateko ikastaroa. **www.ucm.es/info/comturis/cuerpo.htm** Astialdiarekin loturiko gaietan aditu izan nahi baduzue, Madrileko Unibertsitate Konplutentsean On-Line ikastaroa egiteko eta Diplomatura homologatua lortzeko aukera ematen dizue web gune horrek.
- Deustuko Unibertsitatearen menpeko Aisiazko Ikaskuntzen Institutuak aisiaren kudeaketarekin loturiko graduondoko bi ikastaro eta Aisia eta Giza Baliabideak doktoregoa eskaintzen ditu. Informazioa honako web gune honetan: **www.ocio.deusto.es**

# Naturagune paregabeak

## Espacios naturales privilegiados

*Natura 2000 Sareak ingurumen-balio handia duten Europako lekuak babestea du helburu. Gida honek Euskal Autonomia Erkidegoak sare horretarako proposatu dituen 57 inguruneak biltzen ditu. Irudi eta marrazki eder asko eskaintzen dituen argitalpen bikain honek gainditu egiten du balio dokumentala, eta benetako atsegina eragiten du irakurtzean.*

*Esta guía recoge los 57 espacios de interés comunitario que la CAPV presenta a la red europea Natura 2000, cuyo objetivo es dotar de protección a lugares de un alto valor ambiental. Esta magnífica edición, por la belleza de sus imagenes e ilustraciones, sobrepasa el valor documental haciendo que su lectura sea un auténtico placer.*







## "EAEko natur bideak" bildumako bostgarren alea kaleratu da

## Quinta entrega de la colección "Rutas de interés ambiental en la CAPV"

*Oraingo zenbaki hau ez da trenei buruzko liburua: trenek irekitako bide nagusiak ezagutaraztea du helburu. Antzina meatzaritzak erabili zituen eta gaur egun aisiarako leku diren bideak.*

*Este nuevo número no es un libro sobre trenes, sino que pretende dar a conocer las arterias viarias abiertas por los mismos: antiguas rutas mineras que hoy ejercen de espacios de esparcimiento.*

***IHITZAren ale guztiak sarean:* www.euskadi.net/ihitza *Todos los números de IHITZA en la web***

***Gai hauek prestatzen gabiltza:***

***15 zk.: Osasuna.***
***16 zk.: Ondarea.***
***17 zk.: Klima.***
***Zuen ekarpen eta iradokizunen zain gaude.***

***Números en preparación:***

***Nº 15: La salud.***
***Nº 16: El patrimonio.***
***Nº 17: El clima.***
***Esperamos vuestras aportaciones y sugerencias.***

## CEIDA *ingurumen heziketa zure eskura*

BILBAO
**Ondarroa, 2**
**48004 Bilbao**
- **944 11 49 99**
- ceida-bilbao@ej-gv.es

URDAIBAI
**Udetxea Jauregia**
**48300 Gernika–Lumo**
- **946 25 71 25**
- urdaibai@ej-gv.es

DONOSTIA
**Basotxiki, 5**
**20015 Donostia**
- **943 32 18 59**
- ceida-donosti@ej-gv.es

LEGAZPI
**Brinkola, z/g**
**20220 Legazpi**
- **943 73 16 97**
- ceida-legazpi@ej-gv.es

VITORIA–GASTEIZ
**Baiona, 56–58**
**01010 Vitoria–Gasteiz**
- **945 17 90 30**
- ceida-vitoria@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN